



Ebaluazio Ebolutiboa





01
Oinarriak

04 Zer da? 14 Mitoak 19 Oreka 22 Printzipioak
27 Ezberdintasunak 35 Noiz da egokia 52 Rolak
60 Gaitasunak 67 Nola gauzatzen da?

02
Metodoak

71 Tresnak 75 Printzipioen definizioa 87 ORID
109 Aldaketa esanguratsuei buruzko gertakizunak
126 Ebaluazio Ebolutiboaren beste teknika batzuk
128 InDeep 139 Hausnarketa saioak 147 Gida galderak
154 Sareen mapa
158 Indarguneetan oinarritutako ikerketa

Aurkibidea



Oinarriak



01
|
01

Ebaluazio
Ebolutiboa



Zer da?



01

Ebaluazio
Ebolutiboa

01

Zer da?

Ebaluazio ebolutiboa ingurune konplexu eta dinamikoetan, eta ziurgabetasuna nagusi den testuinguruetan, ikastea eta egokitzea ardatz dituen ebaluazioaren ikuspegia da.

Bereziki baliagarria da ohiko ebaluazio-metodoak guztiz egokiak ez diren egoeretan.

Zer da?





01

Ebaluazio
Ebolutiboa

01

Ebaluazio ebolutiboa (EE) egitasmoak edo proiektuak ebaluatzeko modu bat da, batez ere garatze- edo sortze-prozesuan dauden egitasmoak ebaluatzeko egokia da.

Horietan **zerk funtzionatzen duen eta zerk ez ulertzeko erabiltzen da**, eta ikasitakoaren arabera beharrezko aldaketak identifikatu eta gauzatzeko.



Erabaki hobeak hartzen laguntzen du etengabeko atzeraelikadura-sistema baten bidez.

Zer da?



01

Ebaluazio
Ebolutiboa


01

Ebaluazio tradizionaletan, egitasmo batek bere helburuak lortu dituen baloratzen da normalean. Baina **EEK egitasmoak faktore askoren eraginpean daudela eta denborarekin alda daitezkeela ulertzen du**; horregatik, EEK horiek nola garatzen diren aztertzen du eta horiek garatzen laguntzen du, helburu jakin batzuk betetzen dituzten egiaztatzerara mugatu beharrean.



EEren helburu nagusia da testuinguru konplexuetan zein hastapen faseetan dauden egitasmoetako kideei ikasten eta egokitzen laguntzea. Horretarako, datuak, azalpenak zein balorazioak etengabe biltzen ditu, eta, horri esker, doikuntzak eta hobekuntzak egiten dira.

Zer da?






01
01

Ebaluazio
Ebolutiboa

EEK testuingurua bere osotasunean kontuan hartzen du, programak bere inguruarekin eta parte diren sistemekin nola elkarreragiten duen aztertzen du, hau da, beste faktore batzuek nola eragiten dioten eta berak nola eragiten duen azalarazten ditu. Horrek programaren konplexutasuna ulertzen laguntzen du.

EEK lankidetzak eta lidergo jarraitua eskatzen ditu. Eragile ezberdinak elkarrekin lan egitea, ideiak partekatzea eta bildutako datuei zentzua ematea eskatzen du. Elkarrekin lan egiteak, zerk funtzionatzen duen, zerk ez duen funtzionatzen eta zer aldaketa egin behar diren ulertzen laguntzen die inplikaturako eragile guztiei.

Zer da?





Oro har, EE egitasmoei **ikasten eta egoera konplexuetara egokitzen laguntzen dien ikuspegia** da.

Etengabe hobetzea, informazioa biltzea eta erabakiak hartzea da helburua; betiere, arrazoiak ezagututa, **emaitza hobek lortzeko**.

Zer da?

01

Ebaluazio
Ebolutiboa

01

Laburbilduz, Ebaluazio Ebolutiboak lau ekintza zehatzetarako baliagarria da eta horietan ekarpena egin dezake.

Agirre Lehendakaria Center eta EIT Climate-KIC erakundeek egindako eraldaketa prozesuetan horrekin esperimentatu dute, eta Mikkel Nedergaard-ek eta Ione Ardaiz-ek horrela jaso zituzten **“Ezin da tortilla bat egin arrautza batzuk hautsi gabe. Nola txertatu Ebaluazio Ebolutiboa gizarte-mugimenduen aktibazioan eta sistema-aldaketetan”** testuan:



Iturria: Clear Horizon

Zer da?



**Egiten ari garena
gure helburua lortzen
laguntzen ari digu?**

Zer da?



ikaskuntza

**Zer da funtzionatzen
duena?
Zerk ez du funtzionatzen?
Zer aldatu behar da?
Zer egiten jarraitu behar
dugu?**

Ikasteko eta hausnarketarako
guneak funtsezkoak dira gure
jarduerak etengabe kontrastatu
eta egokitzeko eta nahi den
eragina sortzeko.



01

Ebaluazio
Ebolutiboa


01



komunikazioa

**Zer ari da gertatzen?
Zer eragin sortzen ari
gara?**

Batetik, barne-komunikazioak barne-taldeak lerrokatzen ditu eta, bestetik, kanpo-komunikazioa funtsezkoa da mugimendua eraikitzeko eta sistemak aldatzeko interesa duten eragileak erakartzeko eta inplikatzeko.



kudeaketa

**Zein dira eraldaketa
aktibatzeko ditugun
hipotesiak?**

**Zer jarduera egingo
ditugu?**

**Nola interpretatzen
ditugu egiten ari garen
jarduerak?**

Azken elementu horren bidez, EEK sistemen aldaketa nola babesten duen ikusi eta horren jarraipena egiten da.

Zer da?



01

Ebaluazio
Ebolutiboa

01

Ebaluazio Ebolutiboa zer den ulertzeko, **zer ez den** deskribatzeak ere laguntzen du:



Helburua ez da arazoei erantzunak bilatzeko prozesua ordezkatzea, ezta programa baten lorpenei buruzko iritziak ematea ere.



Ez da monitorizazioa, ezta ebaluazio tradizionala ere, non abian den programa bati buruz datuak biltzen diren.



Ez da metodo edo prozesu zehatz bat. Beste helburu bati erantzuten dio: egokitzapena eta berrikuntza ahalbidetzea, konplexutasunari aurre egiteko.

Zer da?




01 ————— 02

**Ebaluazio
Ebolutiboa**

Mitoak





02

Ebaluazio
Ebolutiboa

01

Ebaluazio Ebolutiboaren mitoak


Ebaluazio Ebolutiboari buruz lehen aldiz entzutean, edo ikuspegia praktikara eramateko lehen saiakeretan, ondorengoak bezalako mitoak entzuten dira. Ebaluazio Ebolutiboa zer ez den ulertzeko, horiek guztiak azaltzea komeni da.

Mitoa >>>>>>>>> Errealitatea

**Ebaluazio
Ebolutiboak
beste ebaluazio
mota batzuk
ordezkatzten ditu.**

**Beste ebaluazio ikuspegi batzuen
osagarria da,** eta ez ditu inolaz ere besteak ordezkatzen. Erabiliko den ebaluazioa aukeratzeko, programaren berriazko beharrak kontuan hartu beharko dira.

Mitook



02

01

Ebaluazio
Ebolutiboa



Mitoa >>>>>>>>> Errealitatea

**Ebaluazio
Ebolutiboa
metodo
bigunetan
(ulermen
subjektiboa,
esperientzia
pertsonalak
eta banakako
ikuspegiak
bakarrik biltzen
dituena)
oinarritzen da.**

**Beste edozein ebaluazio
prozesu bezain zorrotza da.**
Froga zehatzetan oinarritutako
ikuspegietan oinarritzen da, eta
galdera zorrotzak
zein datu bilketa
egingo dira,
programaren
eragina
sakon
ulertzeko.



Mitoak



Mitoa >>>>>>>>>

Errealitatea


Ebaluazio Ebolutiboa istorioak jasotzean datza.


Istorio esanguratsuak bildu daitezkeen arren, Ebaluazio Ebolutiboak **hainbat metodo kualitatibo eta kuantitatibo erabiltzen ditu**, ebaluazioaren helburuen arabera. Istorioen bilketa hutsa baino haratago doa.

Ebaluazio Ebolutiboa prozesuen ebaluazioa da

Prozesuaren ebaluazioa Ebaluazio Ebolutiboaren parte bada ere, azken helburua emaitzak dira. Ebaluazio Ebolutiboaren xedea da emaitzekiko aurrerapena ulertzea eta jasotzea.

Mitook





02

01

Ebaluazio
Ebolutiboak

Mitoa >>>>>>>>>

Ebaluazio
Ebolutiboak
garrantzia
kentzen dio
erantzukizunari.

Ebaluazio
Ebolutiboa eta
eboluzio parte
hartzailea gauza
bera dira.

Errealitatea <<<<<<<<<<

Ebaluazio Ebolutiboak garapenaren alde egiten du. Funtzionatzen duen eta funtzionatzen ez duenetik ikastea garapen modu bat da, eta ordea, **erantzukizun edo kontu ematea prozesuari dagokion alderdia da.**

Ebaluazio parte-hartzaileak planteamendu zabalagoa du Ebaluazio Ebolutiboak, berriz, **helburu zehatz bat du ardatz**. Ikuspegi parte-hartzaileak edozein ebaluazio-motatan erabil daitezkeen arren, Ebaluazio Ebolutiboa ingurune konplexuetako hasierako faseko berrikuntzei laguntzen die.

Mitook



01 ————— 03

**Ebaluazio
Ebolutiboa**

Oreka



03

Ebaluazio
Ebolutiboa


01

Kontzeptu zehatzetan oreka bilatu beharra

Ebaluazio Ebolutiboaren mito horietan erori ez gaitezen, ebaluazio mota honek ondorengoak orekatzeko saiakeran oinarritzen du bere praktika:


Erantzukizuna vs ikaskuntza:

Parte hartzen duen bakoitzak bere gain hartu beharreko erantzukizunak aztertu, eta egin beharreko ikasketa ibilbidea lagundu.



Zorroztasuna vs Malgutasuna:

Ahalik eta informazio zehatzena zein kantitate zabala jaso, eta bildutako datuak aztertzeko malgutasuna.



Oreka




03

01

**Ebaluazio
Ebolutiboa**


Gogoeta eta
elkarrizketa vs
Erabakiak hartu
eta ekintzak
implementatzea:

Ebaluazioaren informazioari
buruzko hausnarketa egiteko
tartea hartu, eta bildutako
datuetan oinarrituta erabakiak
hartu zein hurrengo urratsak
gauzatzea.



Aurrekontu finko baten
beharra vs Sortzen
denaren arabera
erantzuteko aukera eta
malgutasuna izateko
beharra:

Plangintza eta mugarri zehatzak
ezartzea, eta ikasten denaren
arabera hartutako konpromisoak
egokitzen joateko aukerak
aztertzea.






04

01

Ebaluazio
Ebolutiboa



Printzipioak



04

Ebaluazio
Ebolutiboa

01



Printzi-
pioak

Ebaluazio Ebolutiboaren printzipioak

2016. urtean, Patton, McKegg eta Wehipeihanak ebaluazio ebolutiboaren **zortzi printzipio landu zituzten**, mundu osoko 12 adibide oso desberdinen berrikuspenean oinarrituta. *Developmental Evaluation Exemplars: Principles in Practice* liburuan deskribatu zituzten.

Printzipio horiek Ebaluazio Ebolutiboaren diseinua, gauzatzea eta **ebaluazio-pentsamendua gidatzen dituzte.**

Hau da, ebaluazio ebolutiboa modu eraginkorrean egin ahal izateko, egiteko zein pentsatzeko moduei buruzko ulermen-mailan sakontzea ahalbidetzen dute.






04

01

Ebaluazio
Ebolutiboa



Bilakaeraren helburua

Garatzen denari buruz argibideak zein informazioa jasotzea, eta garapena laguntzea. Izaera eta garapen jarraibideak (berrikuntza, egokitzapena, sistema aldaketa) identifikatuz, baita jarraibideen ondorioak azalerratz ere.



Ebaluazioaren zorrotasuna

Ebaluazioa ahalbidetzen duten **galderak egitea; modu ebaluatzailean pentsatu eta parte hartzea;** hipotesiak zalantzan jartzea; ebaluazioaren logika aplikatzea; metodo egokiak erabiltzea; eta oinarri enpirikoa izatea, hau da, datuak zorrotz bildu, interpretatu, baliozkotu eta komunikatzea.



Erabileraren ikuspegia

Erabiltzaileek hasieratik bukaerara aurreikusitako erabileran zentratzea, eta ebaluazioaren erabilgarritasuna eta praktikotasuna bermatzeko erraztasunak ematea.



04


01

Ebaluazio
Ebolutiboa



Berrikuntza

Aldaketa-prozesuek eta ebaluatzen diren emaitzek berrikuntza **zein egokitzapena nola dakartzaten deskribatzea.**



Konplexutasun-aukerak

Garapena ulertzea eta interpretatzea konplexutasunaren perspektiba erabiliz, eta horren araberako ebaluazioa egitea. Horrek esan nahi du konplexutasunaren premisa eta dinamikak erabili behar direla lantzen diren arazoei zentzua emateko, sistemaren berrikuntza-, egokitzapen- eta aldaketa-estrategiak bideratzeko, garatzen dena interpretatzeko, ebaluazioaren diseinua beharren arabera egokitzeko eta sortzen ari diren aurkikuntzak aztertzeke.


Printzi- pioak



04


Ebaluazio
Ebolutiboa

01




Pentsamendu sistemikoa

Momento Uneoro **modu sistematikoan pentsatzea**, eta arreta jartzea ondorengoetan: gizarte-sistemaren erlazioetan, askotariko ikuspuntuetan, mugetan, berrikuntza garatzen den eta **ebaluazioa gauzatzen den testuinguruan, eta beste alderdi gakoetan.**



Ko-sorkuntza

Berrikuntza eta ebaluazioa batera gauzatzea ("elkarrekin pentsatzea, interdependentea, iteratiboa eta ko-sortua"), Ebaluazio Ebolutiboa aldaketa-prozesuaren parte izan dadin.



Behar den atzeraelikadura

Behar den atzeraelikadura egitea, **unean uneko egokitzapenari buruzko informazioa eskura** jartzeko, alegia, beharrak, aurkikuntzak eta perspektibak sortzen diren heinean informazioa partekatzea, eta ez bakarrik aurrez ezarritako uneetan edo proiektuaren amaieran.


Printzi- pioak



05

Ebaluazio
Ebolutiboa

01



Ezberdin- tasunak



05

01

Ebaluazio
Ebolutiboa



Ebaluazio tradizionala vs Ebaluazio Ebolutiboa

Egoeraren arabera, ebaluazio desberdinak behar dira. Ebaluazio mota bakoitzak bere indarguneak ditu, eta guztiak osagarriak izan daitezke. Garrantzitsua da ulertzea gure egitasmoaren testuinguru eta egoeraren arabera zein ebaluazio eredu erabili beharko genuke.

Ebaluazio tradizionala vs. Ebaluazio Ebolutiboaren arteko diferentziak, hausnarketa Michael Quinn Patton-en eskutik:

Ondorengo taulan jasotzen dira ohituta gauden Ebaluazio tradizionalaren eta testu honetan deskribatzen den Ebaluazio Ebolutiboaren arteko aldeak. Bi ebaluazio motak beharrezkoak dira, kasuan kasu bata edo bestea jarraitzea komeniko zaigu.

Ezberdin-
tasunak





05

01

Ebaluazio
Ebolutiboa

Ebaluazio tradizionala VS

Ebaluazio Ebolutiboa

Helburua

Hobekuntza, **proba-batutzaileak eta erantzukizunen bilaketa** lantzen ditu.

Berrikuntzaren garapena eta **egokitzapena garatzen laguntzen du** testuinguru dinamikoetan.

Rolak eta harremanak

Ebaluatzailea lan-taldetik kanpo dago, bere independentzia eta objektibotasuna bermatzeko.

Ebaluatzailea lantaldearen parte da, horrela datuak bildu eta interpretatzeko, erronkak definitzeko, ebaluazio-ereduak diseinatu eta inplementatzeko.

Erantzukizuna eta kontua ematea

Agintari eta finantzatzaileen eskarien araberako irizpide zehatz eta aurredefinituetan oinarrituta.

Balioetan eta berrikuntzaren konpromisoan oinarrituta, inpaktua sortzea du helburu.

Aukerak

Aukerak zorrotz aztertzen dira. Ikerketa tradizionala eta oinarrizko diziplinak dira nagusi.

Ekimenaren ikuspegia hartzen du. Aukerak ekimenaren garapenaren arabera aukeratzen dira.

Ezberdin- tasunak



05

01

Ebaluazio
Ebolutiboa

Ebaluazio
tradizionala VS

Ebaluazio
Ebolutiboa

Neurketa

Neurtu egiten dira: **errendimendua, aurrez definitutako helburuak** eta SMART emaitzak.

Emaitzak agertu ahala, jarraipenerako **adierazleak eta moduak garatzen ditu:** adierazleak aldatu egin daitezke ebaluazioan zehar, prozesua garatu ahala.

Emaitzak

Txosten formalak eta zehatzak garatzen dira. Baliozkotutako jardunbide egokiak jasotzen dira. Akats egitearen beldurra susta dezake.

Iruzkin azkarrak, denbora errealean eta erabiltzen errazak egiten dira. **Ebaluazioaren helburua ikaskuntza elikatzea da.**

Konplexutasuna
eta abstrakzioa

Ebaluatzailea ebaluazioaren diseinua eta **prozesuaren implementazioa kontrolatzen saiatzen da.**

Kontrol ezarekin eroso sentitzea, garatzen ari denarekin kontaktuan egotea eta horren arabera erantzutea.

Estandarrak

Gaitasun metodologikoa eta konpromiso zehatza, independentzia. Egitasmoaren parte ez diren agintari eta finantzatzaileekiko sinesgarritasuna. Pentsamendu analitikoa eta kritikoa.

Malgutasun metodologikoa, egokitzapena, pentsamendu sistemikoa; pentsamendu sortzaile eta kritiko orekatua; anbiguotasunarekiko tolerantzia handia; irekia eta arina; talde-lana eta pertsonen gaitasunak; ebidentzian oinarritutako ikuspegi zorrotzak emateko gai dena.

Ezberdin-
tasunak

Iturria: Ezin da tortilla bat egin arrautza batzuk hautsi gabe. Nola txertatu Ebaluazio Ebolutiboa gizarte-mugimenduen aktibazioan eta sistema-aldaketetan, Mikkel Nedergaard (EIT Climate-KIC) y Ione Ardaiz Osacar (Agirre Lehendakaria Center).



05

01

Ebaluazio
Ebolutiboa

Ondoren, **hiru ebaluazio-modu** (Ebaluazio formatiboa, Ebaluazio sumatiboa eta Ebaluazio Ebolutiboa) eta zein egoeratarako diren egokiak azaltzen da.

Ebaluazio formatiboa

Programa edo proiektua prestatzen, zein hori hobetzen edo ikasketa fasean, baita prozesuak eta prozedurak ezartzen direnean ere.

Egitasmo edo proiektuaren oinarrizko elementuak forma hartzen ari direnean. Oraindik alderdi asko definitu eta hobetu behar direnean.

Emaitzak ezagunak direnean eta horiek lortzeko konfiantza gero eta handiagoa denean.

Programa edo proiektuaren testuingurua zehatza den kasuetan.

Egiten ari garenak ondo funtzionatzen duen edo ez ulertzeko.

Programa edo ekimen baten amaieran, haren etorkizunari buruzko funtsezko erabakiak hartuko direnean.

Ereduak jarraitu, hedatu, zabaldu edo beste erabaki garrantzitsu batzuetarako duen arrakasta edo balioa baloratzen denean.

Ezberdin- tasunak



Ebaluazio sumatiboa

Ebaluazio
Ebolutiboa

05

01

Programa edo proiektua egonkorra eta ondo ezarrita dagoenean.

Ikuspegia eta jarduerak ondo finkatuta, eta parte hartzen duten guztiek "ezagutzen" dituztenean.

Giltzarri diren emaitzei nola eta zein neurritan laguntzen dien jakiteko ziurtasun handia dagoenean.

Proiektua edo programa beste testuinguru batzuetara zabaltzeko edo egokitzeko prestatuta egon daitekeenean.

Ondorengo galderei erantzunak bilatzeko: Egiten ari garenak zenbateraino sortzen du nahi dugun inpaktua? Merezki du egitasmoari segida ematea eta finantzatzen jarraitzea?

Eredu bat egokitzen denean.

Etorkizuneko ebaluazio sumatibo bat espero denean eta, ziurrenik, erreferentziazko datuak beharko direnean.

Ezberdin- tasunak



Ebaluazio Ebolutiboa

Ebaluazio Ebolutiboa

05

01

Programa edo proiektua garatzen, esploratzen, berritzen, sortzen ari garenean.

Berrikuntza bultzatzen dutenek ideia, jarduera, ikuspegi, harremanak eta funtzioak esperimintatzen ari direnean.

Cuando existe una gran incertidumbre sobre lo que puede funcionar del programa o proyecto y la dirección que lleva: soluciones no acordadas.

Etengabe sortzen dira galdera, arazo, arrakasta eta erronka berriak.

Ondorengo galderei buruzko erantzunak jasotzeko: Zer ari da garatzen? Zer ari da sortzen? Eta horrek zer esan nahi du? Eta orain zer egingo dugu?

Konplexutasun handiko egoeretan lan egiten denean.

Gizarte-berrikuntza prozesuen abiapuntuko fasean lan egitean.


Ezberdin- tasunak



05

01

Ebaluazio
Ebolutiboa



Materialak

Clear Horizon erakundeak Oñatiko tokiko laborategian eman zuen prestakuntzan partekatutako materialak (Oñatiko Udalarekin batera garatutako proiektua, Etorkizuna Eraikiz finantzazioarekin).



Erreferentziak:

Dfitzgerald. (2022, 19 octubre). The case for developmental evaluation. FSG. <https://www.fsg.org/blog/case-developmental-evaluation/>

Gamble, J. (2008). A Developmental Evaluation Primer. Montreal: The J.W. McConnell Family Foundation. Extraído de: <https://mcconnellfoundation.ca/wp-content/uploads/2017/07/A-Developmental-Evaluation-Primer-EN.pdf>

Nedergaard, Mikkel & Ardaiz Osacar, Ione (2020) [Ezinda tortilla bat egin arrautza batzuk hautsi gabe. Nola txertatu Ebaluazio Ebolutiboa gizarte-mugimenduen aktibazioan eta sistema-aldaketetan](#)

Kathy Brennan (2014)
Next Generation Evaluation: Embracing Complexity Connectivity and Change

Erre- ferentziak



06

01

Ebaluazio
Ebolutiboa

Noiz da egokia



06

Ebaluazio
Ebolutiboa


01

Noiz da egokia

Sortzear dagoen egitasmo bat ebaluatzeko egokia izan daiteke, **gai jakin bati erantzun nahi diona edo oraindik forma hartu ez duen ideia berri** bat esploratzen ari dena.

Halaber, **testuinguru aldakor batean** hurbilketa tradizionalak eraginkorrak ez direnean eta alternatibak aztertu behar direnean.

Noiz ?





06

01


Ebaluazio
Ebolutiboa

Noiz erabili Ebaluazio Ebolutiboa?

Zenbait arrazoi egon daitezke erakunde bat berrikuntza-prozesuari edo -bideari ekiteko. Erakunde eratu berria edo trebatze-prozesuan dagoena izan daiteke, arazo jakin bati erantzuna ematen saiatzen ari dena, edo oraindik erabat osatu ez den ideia berri bat aztertzen ari dena; edo, agian, testuinguru aldakor batek planteamendu tradizionalak eraginkortasunik gabe utzi ditu eta alternatibak aztertzeko beharra dago.

Kanadako McConnell Fundazioak argitaratutako "A developmental evaluation primer" txostenean azaltzen da Kiribil Panarkikoa izeneko kontzeptua (Panarchy framework). Kiribil Panarkikoa eboluziorako edo garapenerako lau fase deskribatzen ditu:

Berrantolaketa, kontserbazioa, hazkundea, abiatzea.




Iturria: Gamble, J. (2008). A Developmental Evaluation Primer. Montreal: The J.W. McConnell Family Foundation

Noiz ?



06
01

Ebaluazio
Ebolutiboa



Iturria: Gamble, J. (2008). A Developmental Evaluation Primer. Montreal: The J.W. McConnell Family Foundation

Noiz ?



06
Ebaluazio
Ebolutiboa
01

Berrantolatze fasea:

Berrikuntza, berregituratze eta ziurgabetasun handiko etapa bat da, baina berrezartzeko gaitasun handia ahalbidetzen duena.

- Askotan, aldaketaren batek eragiten du.
- Berrikuntza eta berregituratze momentua jasotzen da.
- Aldaketarekiko erresilientzia handia izaten dute inplikaturako eragileek.

Noiz ?



06

Ebaluazio
Ebolutiboa

01

Kontserbazio fasea:

Hazkundera moteldu egiten da kontserbazio fasean. **Baliabideak, neurri handi batean, sistema mantentzeko erabiltzen dira.**

Ezaugarri hauek ditu: egonkortasuna, ziurtasuna, malgutasun murriztua eta erresilientzia gutxikoa.

- Sistema egonkortzen hasten den momentua da.
- Baliabideak momentu honetan sistema mantentzeko erabiltzen dira eta ez hazteko.
- Erresilientzia txikia da.

Noiz ?



06
Ebaluazio
Ebolutiboa
01

Hazkunde fasea:

Hazkunde azkarreko unea islatzen du. Fase hau ezaugarritzeko kontzeptuak ondorengoak dira: lehia, aukerak, aniztasuna eta loturak.

- Baliabideen pilaketak bultzatuta gertatu daiteke edo horiek erakarrira sortua izan daiteke.
- Erresilientzia handiarekin hasten da baina gutxitzen joango da denboran zehar.

Noiz ?



06

Ebaluazio
Ebolutiboa

01

Abiatze fasea:

Egoera berri batek aldatu egiten du egungo oreka, eta **zikloa berriz hasten den momentua** da.

- Askotan kaotikoa da eta ziurgabetasun-sentsazioa eragiten du.
- Berreskuratzeko gaitasuna txikia den arren hazten joango da.

Noiz ?



06

Ebaluazio
Ebolutiboa

01

Ebaluazio mota desberdinak egokiak dira eraldaketaren fase bakoitzean.

Ebaluazio Ebolutiboa deskribatutako lau fase horietan baliatu daiteke eta modu desberdinetan ekarpena egin dezake. Baina, ebaluazio mota hau aproposa da **aldaketa askoko eta ziurgabetasun handiko egoeretan**, zehazki, azaldutako Kiribil Panarkikoaren Berrantolatze fasean.

Noiz ?



06


01

Ebaluazio
Ebolutiboa

Ebaluazio-ikuspegi tradizionalak mugak dituzte egoera konplexuetan

Ebaluazio ebolutiboa, hasiera batean, erronkei erantzunak bilatzeko ikuspegi logikoari laguntzeko sortu zen. Hurrengo diagraman ikusten denez, ikuspegi logiko horretan, metodikoki, egoeraren ebaluaziotik datuak bildu eta aztertzea, ebazpen bat formulatzea eta ondoren aplikatzea igarotzen gara.

Ebaluazioa problemaren ebazpenaren ikuspegi logikoari laguntzeko sortu zen (Gamble, 2008).



Noiz ?



06

Ebaluazio
Ebolutiboa

01


**Ikuspegi logiko lineal
horrek oso ondo
funtzionatzen du:**

- Arazoa ondo ezagutu eta ulertzen denean
- Muga argiak daudenean
- Irtenbide edo soluzio posibleen multzo mugatu bat dagoenean

**Baina, egoera
konplexuak eta
berrikuntza egitasmoak
ez dira horrelakoak. Izan
,ere, arazo konplexuak
definitzea zaila da:**

- Ez daude mugatuta
- Ez dute konponbide optimorik
- Ez dira parametro egonkorren barnean gertatzen


Noiz ?





06
Ebaluazio
Ebolutiboa
01

Berrikuntzaren edo konplexutasunaren esparruan lan egiteak aldaketa azkarrak eskatzen ditu maiz arazoaren eta konponbidearen artean.



Iturria: Gamble, J. (2008). A Developmental Evaluation Primer. Montreal: The J.W. McConnell Family Foundation

Noiz ?



06

Ebaluazio
Ebolutiboa

01

Michael Quinn Pattonek proposatutako bost eremuak

Michael Quinn Pattonek (2011) bost eremu bereiztu zituen Ebaluazio Ebolutiboa noiz den egokien adierazteko.

01

Eragin handia sortu eta hedatzeko aukera izan dezakeen berrikuntzaren hastapenean

Berrikuntza-prozesuak abiapuntuko faseetatik bideratzeko erabiltzen da. Erakunde eta ekimen berriak sortzea barne.

02

Beste toki batzuetan eragin positiboa izan duten printzipioak tokiko testuingurura egokitzean

Ebaluazioak gero eta gehiago oinarritzen dira printzipioetan, eta hori eremu guztietan islatzen da. Ebaluazio Ebolutiboa printzipioak testuinguruan kokatzen laguntzen du, printzipio berriak garatzen eta printzipioetan oinarritutako ebaluazioa gauzatzen.

03

Irtenbideak denbora errealean aztertzea eta krisiei erantzun berritzaileak ematea

Covid 19ren pandemiak eremu hori indartu eta zabaldu du, eta Ebaluazio Ebolutiboa dinamika edo estrategia garrantzitsu berrietarako trantsizioa nola bultzatzen duen ikusi da.

Ebaluatzaileak ohartu dira lidergo-aldaketek, gertaera garrantzitsuek edo politiken norabide aldaketek inflexio-puntuak sustatu ditzaketela.

Noiz ?



06

01

**Ebaluazio
Ebolutiboa**

04

Erakunde baten etengabeko garapena


Etengabeko garapena egiturak, prozesuak eta barne-erakundeak egokitzeari dagokio. Hau da Ebaluazio Ebolutiboa erakundearen barne kulturaren eta ikaskuntza-praktiketan integratzea. Horrela, erakundearen estrategiaren eta etengabeko prozesu aldaketaren parte izateko.

05

Garapenaren zeharkako ebaluazioa

Garapenaren zeharkako ebaluazioa sistematan aldaketa garrantzitsuak lortu nahi dituzten ekimenetan aplikatzen ari da. Eraldaketa planifikatzen, diseinatzen, garatzen eta ebaluatzen den moduaren bereizgarri gisa.

Horrek tokian eta talde-eraginean oinarritutako ikuspegiak izan ditzake.



Noiz ?



06

Ebaluazio
Ebolutiboa

01

Eremu horien arteko bereizketa ez da zurrunda

Ebaluazio Ebolutiboa horietako batzuk bateratu ditzake, edo batetik bestera aldatu daiteke denborarekin. Pattonek eremuei buruz duen iritzia ere aldatzen ari da. Covid 19aren pandemiak eta arraza-justiziaren aldeko mugimenduek bultzatuta, Patton-ek (Evaluation Implations of the Coronavirus Global Health Pandemic Emergency, 2020) honi buruz gogoeta egiten du:

Ebaluazioak beste helburu batzuk izan ditzake, zeintzuk Ebaluazio Ebolutiboak bultzatzen dituen helburuez haratago doazenak: adibidez, kontuak ematea, edo ongi garatutako eredu baten eraginkortasunari buruzko balorazio bat eman beharra, edo ekintzak balio multzo bati erantzuten diotela frogatu beharra. Ebaluazio Ebolutiboa ez dago helburu horietarako pentsatuta. Hala ere, gure esperientziaren arabera, inoiz ez dago bereizketa argirik.
Ebaluazio Ebolutiboa beste ebaluazio-helburu batzuekin konbinatzen da.

Noiz ?



06

01

Ebaluazio
Ebolutiboa

Ebaluazio Ebolutiboaren intentsitatea eta sakontasun ezberdina izan daiteke

Batzuetan, egoera batek ez du eskala handiko Ebaluazio Ebolutibo intentsiborik behar. Baliteke ebaluatzaileak orientatzaile-lana egitea eta gizarte berrikuntzako teknikariek ebaluazio-lan guztia egitea. Beste batzuetan, ebaluatzaile-talde osoa eta Gizarte Berrikuntza teknikari talde osoa izan daiteke.

Noiz ?



06

01

Ebaluazio
Ebolutiboa



Materialak:

Clear Horizon erakundeak Oñatiko tokiko laborategian eman zuen prestakuntzan partekatutako materialak (Oñatiko Udalarekin batera garatutako proiektua, Etorkizuna Eraikiz finantzazioarekin).



Erreferentziak:


Gamble, J. (2008). A Developmental Evaluation Primer. Montreal: The J.W. McConnell Family Foundation. Extraído de:
<https://mcconnellfoundation.ca/wp-content/uploads/2017/07/A-Developmental-Evaluation-Primer-EN.pdf>

Patton, M.Q. (2011). Developmental Evaluation: Applying Complexity Concepts to Enhance Innovation & Use. New York, NY: Guilford Press.

Erre- ferentziak



Rolak





07

01

Ebaluazio
Ebolutiboa


Nork parte hartzen du eta zein gaitasun behar ditu?

Ebaluazio Ebolutiboa **epe luzeko lankidetzaren harremanetan** oinarritzen da, zehazki, ebaluatzaileen eta ekimen berritzaileen **zein eraldaketa-ekimenetan parte hartzen dutenen arteko harremanetan**.

—
Michael
Quinn Patton

Ebaluatzailearen eginkizun nagusia ebaluazio taldearen eztabaidak galderekin, datuekin eta analisiarekin argitzea da; halaber, rol horren eginkizuna da datuetan oinarritutako balorazioak erraztea eta erabakiak hartzeko prozesua dinamizatzea.

Ebaluatzaileak funtzio hauek bete ditzakete egoeraren arabera:




Lagun kritikoa



Bideratzailea



Ikerlaria



Dokumentatzailea

Rolak



07

Ebaluazio
Ebolutiboa

01

Lagun kritikoa

Bere funtzio nagusia da ebaluazioan zehar ikuspegi kritikoa izatea eta horren arabera balizko erantzunak proposatzea. Gainera ebaluazioan zehar bidelagun izango da eta taldea lana garatzera inspiratuko du.

Informazio zintzo eta argia ematen du.

Erantzukizunak:

- Patroiak detektatzea.
- Estrategiari buruz galderak egitea.
- Adostutako printzipioak jarraitzen diren behatzea.





07

01

Ebaluazio
Ebolutiboa

Ikerlaria

Ebaluazioaren plangintza zehazten, informazio bilketan eta datu-analisia parte hartzen du.

Erantzukizunak:

- Goi-mailako ebaluazio-esparrua zehaztea.
- Ebaluazioaren plangintza zehatzak garatzea.
- Ebaluaziorako metodologak eta teknikak aukeratzeko gida definitzea.
- Prozesuan zorrotasuna bermatzea: triangulazioaren bidez eta kontribuzioak eginez.

Rolak





07

01

Ebaluazio
Ebolutiboa

Bideratzailea

Bideratzaileek hausnarketa eta ikasteko gunea eskaintzen dute, gogoetarako eta ikaskuntzarako tresnen bitartez.

Aldaketaren teoria sortzea eta egokitzea beraien ardura izango da.

Erantzukizunak:

- Hausnarketaren bidez ikasketa prozesua erraztea.
- Aldaketaren teoria sortu eta egokitzea.

Rolak





Dokumentatzailea

Prozesuaren ikaskuntzak jaso eta idazten du, baita oinarriko aurkikuntzak ere.

Erantzukizunak:

- Ikaskuntzen erregistroa egitea.
- Ikaskuntza esanguratsuenak biltzea
- Ikaskuntzaren laburpenak jasotzea
- Kronogramak eta partaideen bidaiamapak sortzea.
- Prozesuak ebaluatzeko txostenak idaztea.
- Ebaluazio Ebolutiboari buruzko txostenak sortzea






07

01

Ebaluazio
Ebolutiboa

Goian zehaztutako funtzio zein erantzukizunak ez dira zurrunak, alegia, horrela jasotzeak ez du esan nahi rol bakoitzak horiek guztiak eta prozesu guztietan egin behar dituenik. Halaber, goiko zerrendek ez dituzte xehetasun guztiak jasotzen.

Hain zuen ere, Ebaluazio Ebolutiboaren **oinarrian dagoen egiteko modua bezala, egoeraren arabera gauzatzen dira**. Eta ez dira soilik ebaluatzaile ebolutiboek betetzen dituzten funtzioak; izan ere, hainbeste proiektu-taldeetako kideek ere rol horiek joka ditzakete.



Rolak



07


01

**Ebaluazio
Ebolutiboa**

Ebaluatzaile ebolutiboek funtzio horien mugak kudeatu behar dituzte.

Adibidez, batzuetan, ebaluatzaile ebolutiboek eskatzen zaie prozesuaren dinamika orokorrean edo zerbait ezartzeko moduan arreta jartzea; hala ere, ebaluatzaile ebolutiboak ez dira proiektuaren zuzendariak edo prozesu zein gertaera baten bideratzaile nagusiak. **Ebaluazio-jarduera erraztearen eta ekimen bat bideratzearen arteko tartea txikia da, eta hori kontuan eduki behar dute prozesuan parte hartzen duten eragileek.**

Rolak





08

01

Ebaluazio
Ebolutiboa



Gaita- sunak



08

Ebaluazio
Ebolutiboa

01

Gaitasunak

Ebaluazio Ebolutiboko ebaluatzaileek beren praktikatik ikasten dute, eginez beraien praktika garatzen eta hobetzen dute.

Ebaluazio Ebolutiboak ebaluazio tradizionalaren ohiko gaitasun asko biltzen ditu, besteak beste: **metodologia ulertzea, proiektuak kudeatzea eta eragile ezberdinen arteko harremanak koordinatzeko gaitasuna izatea.** Gainera, Ebaluazio Ebolutiboaren ebaluatzaileek izaera dinamikoa, emergentea eta egokitzaileak behar dituzte berrikuntzan zein testuinguru konplexutasuetan jarduteko. Gaitasun horiek guztiak praktikan ikasi eta hobetu ohi dira.

Gaita- sunak

Iturria: Gamble, J., McKegg, K. & Cabaj, M. (2021). Developmental Evaluation Companion. McConnell Family Foundation. Extraído de: A-Developmental-Evaluation-Companion-McConnell-Foundation.pdf (mccconnellfoundation.ca)



08

01

Ebaluazio Ebolutiboa



Ebaluazio-galderak egiteko gaitasuna

Ebaluazio-galderak egiteko gaitasuna ebaluazio guztien funtsa da, Ebaluazio Ebolutiboa barne. Testuinguru berritzaile, egokitzaile eta konplexuetan, Ebaluazio Ebolutiboaren ebaluatzaileek funtzio nagusietako bat da **prozesuaren galderak ebaluazioa erabiliko dutenen gai baliotsu eta garrantzitsuetan zentratzea.**



Patroiak hautemateko gaitasuna

Ebaluazio Ebolutiboko ebaluatzaileak konpromiso sakona eta sistematikoa izan behar du hainbat informazio-zein datu-mota bildu eta laburbildu behar baititu egoera batean gertatzen denaren izaerari, kalitateari eta balioari buruzko iritziak sortzeko. Hori burutzeak bere konplexutasuna du; askotariko **informazio-iturrietatik patroiak, esanahiak eta ikaskuntzak ateratzeko gai izatea eskatzen du, ñabardura eta desberdintasun garrantzitsuak galdu gabe.**

Gaita- sunak



08

01

Ebaluazio Ebolutiboa



Egoera definitzeko gaitasuna

Ebaluatzaile ebolutiboek hautemateko gaitasun handia behar dute, gertatzen ari dena identifikatzeko eta izendatzeko gai izan behar dute. Ebaluazio Ebolutiboa zehatza izan dadin, funtsezkoa da **pertsonei modu zorrotz eta sistematikoan laguntzea beren ikerketa formulatzen** eta, ondorengo datuak biltzen, aztertzen, ebaluazioari buruzko gogoeta egiten eta erabakiak hartzen.



Pentsamendu kritikoa eta ebaluazioaren arrazoibidea

Ebaluazio Ebolutiboaren ebaluatzaileek **errazte kritikoa eta ebaluazioaren praktika zorrotza jarraitu behar dute**, eta, ahal den guztietan, pentsamendu zein ikuspegi kritikoak txertatzeko aukerak bilatu behar dituzte. críticos siempre que puedan.

Gaita- sunak



08

01

**Ebaluazio
Ebolutiboa**



Taldean lan egiteko gaitasuna

Garapenaren ebaluatzaileek hainbat funtzio eta ikuspegi dituzten **pertsonek osatutako taldeetan lan egiten dute**. Talde horiek barneko nahiz kanpoko alderdi interesatuak har ditzakete. Garapena ebaluatzeko taldeak elkarrekin ikasi, egokitu eta sortzeko aukera bermatu behar da. **Konfiantzazko harremanek, komunikazio onak eta taldekideen arteko loturek** lagunduko dute taldea gai izan dadin modu kritikoan pentsatzeko, hipotesiak zalantzan jartzeko eta elkarrekin ikasteko.



Hainbat metodorekin eroso

Ebaluazio Ebolutiboaren ebaluatzaileak hainbat metodotan adituak dira. **Tresna eta metodo kualitatibo zein kuantitatibo tradizionalenetako batzuekin eroso** sentitu behar dute, baina diziplina eta tradizio askotako tresna eta metodoekin inprobisatzeko prest egon behar dute. Ebaluazio Ebolutiboaren ebaluatzaileek **datu desberdin asko biltzen dituzte testuinguru desberdinetan pentsamendu ebaluatzailea bultzatzeko**.

Gaitasunak



08

01

Ebaluazio Ebolutiboa



Gaiaren ezagutza

Gaia ezagutzea abantaila izan daiteke EE-ko zenbait prozesutan, batez ere azken garapen-faseetan. Barneko eta kanpoko eragileen sinesgarritasuna ere handitu dezake. **Eremu baten ezagutza eguneratua izateak ikerketa-maila sakonagoa ahalbidetzen du eta ebaluatzaileari eztabaida modu egokiagoan kokatzen lagundu diezaioke.** Aldi berean, egoera batzuetan, kanpoko ikuspegi berri bat emateak erronkak eta aukerak ikusteko modu berriak sortzen lagun dezake.



Errazteko gaitasuna

EEn egiten den lanaren zati handi bat pertsonak elkartzea da, batera pentsatu eta sortu dezaten. **Errazte prozesua ez da pertsonak aurrez zehaztutako emaitza baterantz gidatzea, baizik eta pentsatzen eta helburu komuna lortzeko beren bideak sortzen laguntzea.** Ekintza-aukerak ikuspegi eta balio askoren arteko elkarreraginetik sortzen dira maiz, eta Ebaluazio Ebolutiboaren ebaluatzaileek zeregin garrantzitsua dute konplexutasun horri nolabaiteko koherentzia emateko orduan.

Gaita- sunak



08

01

Ebaluazio Ebolutiboa

Errefe- rentziak



Materialak:

Clear Horizon erakundeak Oñatiko tokiko laborategian eman zuten prestakuntzan partekatutako materialak (Oñatiko Udalarekin batera garatutako proiektua, Etorkizuna Eraikiz finantzazioarekin).



Erreferentziak:

Gamble, J. (2008). A Developmental Evaluation Primer. Montreal: The J.W. McConnell Family Foundation. Extraído de:

<https://mcconnellfoundation.ca/wp-content/uploads/2017/07/A-Developmental-Evaluation-Primer-EN.pdf>

Gamble, J., McKegg, K. & Cabaj, M. (2021). Developmental Evaluation Companion. McConnell Family Foundation. Extraído de:

[A-Developmental-Evaluation-Companion-McConnell-Foundation.pdf \(mcconnellfoundation.ca\)](https://mcconnellfoundation.ca/wp-content/uploads/2021/07/A-Developmental-Evaluation-Companion-McConnell-Foundation.pdf)

Nedergaard, Mikkel & Ardaiz Osacar, Ione (2020)


[Ezin da tortilla bat egin arrautza batzuk hautsi gabe. Nola txertatu Ebaluazio Ebolutiboa gizarte-mugimenduen aktibazioan eta sistema-aldaketetan](#)



09

01

Ebaluazio
Ebolutiboa



Nola gauza-
tzen da?





Nola gauzatzen da?

Ebaluazio Ebolutiboa gauzatzeko metodo edo urratsak jarraitzeko beharra sentitu arren, ebaluazioa garapena jorratzen duenez, **metodo zehatz batek ez du egoera guztietarako balio izango. Egitasmo zein testuinguru zehatz bakoitzera egokitzen den eredu diseinatu beharko da.**

Ebaluatzaileek parte-hartzaile eta egoeraren arabera hautatzen dituzte metodoak eta ikuspegiak. Halaber, aukeraketa horretan kontuan hartu beharko dira: **prestakuntza, gaitasunak eta jarrerak, erabiltzaileen interesak eta lehentasunak, ebaluazioaren ardatz izango diren ikerketa-ildoak eta baliabideak.**

Gainera ekimenak forma hartu ahala irismena aldatu behar izatea da ohikoena, gauza berriak ikasi eta lehentasunak aldatzen direnean.



Nola?




09

Metodoak

01

Ebaluazio Ebolutiboaren faseak

Esan daiteke EE-k hiru fase nagusi dituela:



Faseak



09

**Ebaluazio
Ebolutiboa**

01




Hasierako fasea

Egin beharreko egokitze-lana

- Harremanak eta konfiantza eraikitzea.
- Ikaskuntzarako eta aldaketarako testuingurua sortzea (konfiantza, kultura, eginkizunen argitasuna, ordena, baimena, asmoa).
- •EEren eta ekimen/taldearen funtzioarekin lan egiteko moduak ezartzea.

Faseak





09

01

**Ebaluazio
Ebolutiboa**

Egin beharreko lan teknikoa


Irismena:


- Testuingurua eta egoera ulertzea.
- EEren xedea, erabiltzaileak eta irismena definitzea.

Lan plangintza finkatzea:

- Aurrekontua prestatzea eta lana nola kontratatu edo baliabideak nola lortu erabakitzea.

Faseak





Egin beharreko lan teknikoa

Lehen urratsak:

- Ekimenaren oinarriak garatu edo adostea, adibidez: xedea, printzipioak, parte-hartzaileak, gobernantza, mugarriak eta balizko emaitzak

- Asmoa adosteko galderak:

Zein da lan honen helburua?
Zergatik da garrantzitsua?
Zein dira zuen anbizioak?
Zer ikasi nahi dugu?
Zein da jaso nahi dugun informazioa?


- Printzipioak zehazteko galderak:

Zein arau jarraitu behar ditugu?
Zer dago ebaluazio honen baitan eta zer geratzen da kanpoan?

- Parte hartzaileak gonbidatu:

Nork beteko du rol bakoitza?

Faseak





09

01

**Ebaluazio
Ebolutiboa**

Egin beharreko lan teknikoa

Lehen urratsak:

- Grupos de interés y grupos de expertos para la recogida de información:

Nor hartu behar dugu kontuan?

- Gobernantza eta egitura diseinatu:

Nola antolatuko gara?

- Informazio jasoketa planifikatzea:

Noiz, nork, metodoa/teknika, informazioa biltzeko txantiloia.

- Jasotako informazioaren analisisa eta hausnarketa planifikatzea

**Zer informazio jasoko dugu?
Zentzu-ematea nola egingo dugu?**

Eerako ikerketa-ildo nagusiak garatzea

Faseak



09


**Ebaluazio
Ebolutiboa**

01

Emaitzen adibideak

- Adostasuna.
- Inpaktu-eraketak lortzeko lankidetzaz-
hitzarmena.
- Ekimenaren printzipioak.
- Aldaketaren teoria orokorra.
- EEn dokumentu kontzeptuala edo ebaluazio-
estrategia orokorra, funtsezko ikerketa-arloekin.

Faseak





09

01

**Ebaluazio
Ebolutiboa**



Erdiko fasea

Egin beharreko egokitze-lanak

- Momentuoro “puntu kritikoekin” lan egitea. Betiere, norberarentzako, taldearentzako, antolaketa/ekimenarentzako eta, oro har, sistemarentzako ikaskuntza-une gisa identifikatutako puntu horien inguruan lan egitea.
- Ekimena aurrera eramaten laguntzea, gertatzen ari dena hobe ulertzeko.
- Taldea oinarrizko printzipioekiko leial izatea.
- Ikaskuntzarako eta aldaketarako testuingurua indartzen jarraitzea.

Faseak



09

**Ebaluazio
Ebolutiboa**

01

Egin beharreko lan teknikoak

Garapen-lana:

- Garatzen ari dena zehazten jarraitzea: emaitzak, eredu eta azpian dauden hipotesiak.

Ideiak probatu eta ebaluatzea:

- Berrikuspen-ebaluazioak planifikatu eta aplikatzea.
- Lehenengo ideiak probatu eta iruzkinak egin.

Ikaskuntza estrategikoa erraztea:

- Frogetan oinarritutako hausnarketa- eta plangintza-zikloak erraztea.
- Prozesuari erreparatzea eta horri buruzko iruzkinak egitea; adibidez, prozesua printzipioen arabera ebaluatzea.

Faseak





09

01

**Ebaluazio
Ebolutiboa**

Emaitzen adibideak

- Aldaketaren teoriaren birformulazioa.
- Ikasketak jasotzeko laburpenak.
- Ikasketa txostenak.
- Prozesuaren ebaluazioa faseka.
- Prototipo eta faseetarako Mini-MEL planak eta txostenak.
- Ikerketa-zikloaren plangintza eta txostenak.

Faseak





09

**Ebaluazio
Ebolutiboa**

01



Azken fasea

Egin beharreko egokitze-lanak

- Taldeari trantsizioak identifikatzen eta hurrengo lan-faserako prestatzen laguntzea.
- Ikasteko eta eraldaketarako espazioa eraikitzea (konfiantza, kultura, eginkizunen argitasuna, ordena, baimena, asmoa) hurrengo faserako.

Faseak



09

**Ebaluazio
Ebolutiboa**

01

Trabajo técnico

Recogida de información:

- Codificar los aprendizajes fundamentales para tenerlos en cuenta en la siguiente fase de la iniciativa.
- Codificar el diseño que se está creando y/o las herramientas de diseño (prototipos, piloto, modelo, instrucciones, etc.).

Preparación para la fase siguiente:

- Facilitar talleres de reflexión, aprendizaje y replanificación de «final de fase».
- Volver a desarrollar la estrategia de evaluación para adaptarla a la siguiente fase de la iniciativa.

Faseak





09

01

**Ebaluazio
Ebolutiboa**

Ejemplos de resultados

- Teoría del cambio enriquecida.
- Informes de aprendizaje de fin de fase.
- Informes de evaluación del proceso.
- Mapas vivenciales.
- Informes de evaluación sobre la viabilidad e idoneidad de los prototipos / primeras innovaciones.

Faseak





Metodoak



Arantzazulab

DEMOKRAZIAREN BERRIKUNTZA
DEMOCRACY INNOVATION

3

01

02

Metodología



Tresnak



01

Metodoak

02

Zer da?

Metodoa aipatzen dugunean ez dugu datu-bilketa bezala bakarrik ulertzen. **Metodoek funtsezko galderak zehaztea, datuak biltzea, aztertzea,** ikasten denari zentzua ematea eta estrategiari edo egitasmoari ekarpena egitea barne hartzen dute.

Ebaluazio Ebolutiboaren oinarria esplorazioa izanik, **praktika gehiago bideratzen da galderengatik metrikengatik baino.**

Ebaluatzaileek testuingurua aztertzen dute, beren eta inplikaturako gainerakoen gaitasunak ulertzen dituzte eta sormena oinarri hartuta, galderei nola erantzun eta erabakiak nola hartu definitzen dute.

Ebaluazioa burutzeko, datu-iturri tradizionaletara jo dezakete, hala nola inkestetara edo elkarrizketetara, edo hainbat diziplina eta praktikaren ikuspegiak jarrai ditzakete.



Tresnak



01

Metodoak

02

Ebaluazioa burutzeko erabilgarriak izan daitezkeen zenbait metodo jaso ditugu jarraian, zehazki ondorengoak:

Printzipioen definizioa

ORID

Aldaketa esanguratsuei buruzko gertakizunak (MSC)

Indeep

Hausnarketa saioak

Gida galderak

Sareen mapa

Indarguneetan oinarritutako ikerketa

Tresnak



01

Metodoak


02

Ebaluazio Ebolutiboa **praktikara eramateko beste teknika eta metodologia** asko garatu dira, baita berriak definitzen jarraitzen dira ere.

Ebaluazio mota hau azkeneko urteetan zabaltzen ari da, eta gurean zein nazioarte mailan hainbat berrikuntza taldek honekin esperimentatzen hasi dira.

Ziur datozen urteetan hemen jasotako metodo hauek aberasten eta berriak sortzen joango gara praktikan murgilduta gauden talde eta eragileok.

Tresnak





02

02

Metodoak

Printzipioen definizioa



Zer da?


Gidaritzarako printzipioak

Atal honetan deskribatzen da printzipioetan oinarritutako metodologia eta hori gauzatzeko adibide bat. Xedea da praktikan nola jarri deskribatzea.

Michael Quinn Patton izan zen printzipioetan oinarritutako ebaluazioa sortu zuena eta gaiaren inguruan gehiago sakondu nahi izanez gero, honi buruz idatzitako liburua irakurri dezakezu.

Printzipioetan oinarritutako pentsatzeko modua aldaketarekin konprometituta daudenentzat da, zeintzuk printzipioen arabera gidatutako eraldaketan lana egiten duten.

Iturria: Utilization-focused Evaluation, 2021
-Michael Quinn Patton.



Zer da?



02


Metodoak

02


Mota guztietako aldaketa-ahaleginak sustatzen dituzte **printzipioetan oinarritutako ekimenek**. Printzipioetan oinarrituta daude sustatzaileek egiten dutena eta haien ekintzen zergatiak. Printzipio horiek dira Gidaritzarako Printzipioak.

Gidaritzarako printzipioak

Hona hemen
Gidaritzarako
Printzipioen
adibide batzuk:



Aldaketaren bidea
eginez ikasi



Elkarlanean
jardutea

Zer da?



02

02


Metodoak

Printzipioetan oinarritutako ebaluazioaren oinarria dira balioak, jokatzeko moduak, arauak eta praktikak.

Testuinguru zehatzak baldintzatuta, eta sarritan ingurune konplexuetan garatzen diren **programa/proiektuak diseinatu eta ebaluatzeko tresna multzo bat eskaintzen du**. Orientazio-sistema gisa sortzen dira, ondorengoei buruz egon daitezkeen loturak eta erlazioak identifikatzeko: gure printzipioak (pertsonalak eta erakundearenak), lortu nahi ditugun emaitzak eta izan nahi dugun eragina.

Edozein diseinu- edo garapen-prozesuren parte bezala, printzipioak **etengabe berrikusi eta azter daitezke**. Gure lana printzipio horien arabera nola bideratzen ari den ulertzeko, printzipioekin berriro lerrokatu behar dugun ikusteko, edo printzipioak aldatzea beharrezkoa den erabakitzeko.

Zer da?





02


02

Metodoak

Onurak

Printzipioetan oinarritutako ikuspegiak ikaskuntzan oinarritutako kontumate ereduak babesten du.

Hau da, egitasmoa garatzen goazen heinean eta abiapuntuan zehaztutako oinarriak ardatz hartuta, gure helburuak lortzen zerk laguntzen ari digun eta zerk ez ulertzen laguntzen digu.



Zertarako?



02

02

Metodoak

Konfiantzan oinarritutako lan egiteko modua baliatzen da, alegia, metodologia honek onartzen du egitasmoa garatzen dutenek zehaztutako helburuak lortzeko beraien eskuetan dagoena egingo dutela. Horregatik, metodologia hau **beste ebaluazio tradizionalekin osagarritu daiteke eta sortutako inpaktu erreala neurtu.**

Parte-hartzaileek eta egitasmoen talde motorrak askotan hausnartzen dute printzipioetan oinarritutako ikuspegiaren balioaz

“Erabaki bat hartu ezinean gabiltzanean, **askotan printzipioetara itzultzen gara:** lan egiteko adostutako moduetan ardazten laguntzen digute, oso zurrunik izan gabe”.

Zertarako?



02

02

Metodoak

Praktikan jarri

GUIDE markoa Gidaritzarako Printzipioak lantzeko irizpideen multzoa da. GUIDE akronimoa da eta kalitatezko printzipioen adierazpenak sortzeko irizpideak zehazten ditu.

Marko hori printzipioak **elkarlanean definitzeko** erabili daiteke.

Egokiena **3 eta 5 printzipio** artean adostea da, betiere GUIDE printzipioen markoa ardatz hartuta. Aukeratzen diren printzipioak ekimenean **partehartzen dutenentzat esanguratsuak izatea garrantzitsua da.**

Prak-
tika



02

02

Metodoak

G

Gida
Guide

Ikuspegia aurkeztu: bidelaguntza eta orientazioa ematen du

Norantza zehaztu eta lehentasunen berri ematen du

Eraginkortasuna: zerbait zehatz egitera bideratua (aditz aktiboa)

Kontrako ideiatik bereizgarria edo alternatiboa

U

Erabilgarria
Usefulness

Nahi diren emaitzetara bideratzen dute

Eraginkorra nola izan deskribatzen du

Erabakiak hartzen laguntzen du.

Erabilgarria izan dadin ezaugarri hauek bete behar ditu: ulerterraza, egingarria eta bideragarria.

I

Inspiratzailea
Inspiration

Etikan oinarritutako balioak.

Esanguratsua.

Garrantzitsua delako sentrazioa eta eraldaketarako grina eragiten ditu.

D

Garapena
Development

Testuinguruarekin konektatuta.

Konplexutasunaren arabera egokitzen da.

Iraunkorra.

E

Ebaluagarria
Evaluation

Dokumentatu eta ebaluatu daiteke, hala badagokio

Emaitza dokumentatu eta ebaluatu dezake

Joan nahi duzun lekura eramaten zaituen zehazten du.

**Prak-
tika**



02

02

Metodoak

Behin **printzipioak definituta**, honako galdera hauek egin genitzake printzipioei buruz:

- ⁰¹ **Printzipio argiak, esanguratsuak eta aplikagarriak dira?**
- ⁰² **Jarraitzen ahal dira?**
- ⁰³ **Lortu nahi diren emaitzak lortzera bideratzen gaituzte?**

Prak-
tika



02

02

Metodoak

Nagusien mahaia Oñatin

Adineko pertsoneri hitza ematea eta haien beharrak ezagutzea da helburu nagusia, baina ez bakarria.

Horrez gain, topagune bat sortu nahi da esperientziak eta ezagutzak partekatzeko, kolektiboari eragiten dioten arazoak agerian jartzeko eta horien inguruan gogoeta egiteko, eta Oñatiko Udalarekiko komunikazioa indartzeko zubi bat eraiki nahi da.


Ekimena abian jartzeko, Udalak aurretiko diagnostikoa egin du, eta, horri esker, herritarrek mahai horren eraketari buruz duten interesa aztertu ahal izan da.

Nola bizi nahi dugu Oñatin?



65 urtetik **gorako 58**
auzotar elkarrizketatu

Adibidea





02

Metodoak

02

Printzipioen lanketa nagusien mahaian

Nagusien Mahaiko ekimenaren diseinuaren hasieran, **talde motorrak Gidaritzarako Printzipio batzuk definitu zituen gero mahaira kontrastera eramateko** eta horiek adosteko.

Oraingoz kontrastatuak dauden printzipioak dira eta hemendik aurrera, talde bileretan egindako edo erabakitakoaren inguruan hausnartzeko erabiliko dira.

Hauek dira Oñatiko nagusien mahaian definitutako printzipioak:

Mentalki osasuntsuak diren praktikak egin.

Mahaiaren helburuen alde egingo dugu ez gure interes partikularren alde. (Helburu partekatuetan jartzen dugu arreta, ez gure erakundearen interesean).

Eraikitzeko gunea.
(Sormena sustatzen dugu eta eraikitzaileak gara)

Oñatitik eta Oñatirentzat,
egitasmoak lekuan oinarritua.


Denek dute ahotsa

Adibidea



02

02

Metodoak

Materialak

Clear Horizon erakundeak Oñatiko tokiko laborategian eman zuen prestakuntza partekatutako materialak (Oñatiko Udalarekin batera garatutako proiektua, Etorbizuna Eraikiz finantzazioarekin).

Adibide kapitulua: Printzipioetan oinarritutako ebaluazioa: GUIDE (guilford.com)
<https://www.guilford.com/excerpts/patton3.pdf?t=1>

WHAT WE KNOW SO FAR ABOUT Sets of Principles for Evaluating Systems Change Efforts,
Mark Cabaj. Here to there consulting; Tamarack Institute.
https://cdn2.hubspot.net/hubfs/316071/Events/Multi-Day%20Events/Evaluation%20+%20Design/Resources/WhatWeKnowSoFar-Systems-Change-Evaluation_update.pdf



Erreferentziak:

Principles focused evaluation – search videos. (d. g.). <https://www.bing.com/videos/search?q=principles+focused+evaluation&docid=603515983978975804&mid=D0B-FF28EDD9EB20E3B70D0BFF28EDD9E-B20E3B70&view=detail&FORM=VIRE>

Michael Quinn Patton. (2022, 18 febrero). Brief intro to principles focused evaluation [Bideoa]. YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=TLDIb-8Cgohs>

Principles-focused evaluation – (d/g). Utilization-Focused Evaluation. <https://www.utilization-focusedevaluation.org/principles-focused-evaluation>

Erreferentziak



02 ————— 03

Metodoak

ORID



03

02

Metodoak

Zer da?

ORID galdeketa estrategikoa egiteko metodologia da. Kanadako Kultura Gaien Institutuak (Institute for Cultural Affairs - ICA) garatu zuen.

Proiektuaren partaideei ekintza, saio edo **jarduera baten ondoren erabakiak hartzen laguntzeko metodo eraginkorra** da. Aurrera jarraitu eta erabakiak hartu aurretik taldeei gertatutakoari buruz hausnartzeko eta balantzea egiteko baliagarria izango zaie.



Zer da?



03

Metodoak


02

ORID ingelesezko akronimoa da eta ondorengo hitzak barne hartzen ditu:

Objective, Reflective, Interpretative, Decisional.

Euskarara itzulita ondorengoa esan nahi dute: **helburua, gogoeta, interpretazioa eta erabakimena.**

Akronimo honek galdeketa estrategikoaren prozesuan jarraitutako egitura islatzen du: saio edo jardueran gertatutakoari buruz ados jartzen hasi taldean; gero, gertatutakoaren inguruan taldekideek dituzten sentimenduei eta erreakzioei buruz hausnartu; gauzak modu horretan zergatik gertatu diren aztertu eta egon litezkeen ondorioak identifikatu; eta amaitzeko, erabakiak eta ekintzak definitzen dira.



Zer da?



03

02

Metodoak

Metodo hau Ebaluazio Ebolutiboaren bitartez **erronka konplexuen garapena ebaluatzeko erabilgarria da.**

Ebaluatzaileak ORID metodoa proiektu taldera eramatean ebidentzien bitartez, zehazki taldekideen hausnarketak, erabaki estrategikoak hartzera bultzatzen du. ORID teknikaren erabilpenak **galdera ezberdinen bitartez gertatzen ari denaren balantzea egiteko espazio segurua eskaintzen du.** Ebaluatzaileak proiektu taldeari ikuspegi orokorra lortzen laguntzen die, eta oinarrian gertatzen ari denari zentzua emateko portaera-ereduak aztertzei aukera ematen dio.

Helburuak zehaztu eta erabakia hartzeko uneetan, ORIDek **gertatutakoa ezagutzeko, gertaera garrantzitsuak atzemateko eta eraldaketa ekintzak identifikatzeko aukera** ematen dio ebaluatzaileari. Interpretazio faseak lagun kritiko izateko aukera ematen dio ebaluatzaileari, nola eta galdera estrategikoak eginez eta taldea bere printzipioekin bat egiten ari den kontuan hartuz.

Zer da?



03

02

Metodoak

Gainera, ORID prozesu batean bildutako oharrak **egindako lana dokumentatzeko baliagarriak izan daitezke** -adibidez, ebaluazio edo ikaste prozesu txosten bat osatzeko-; izan ere, funtsezko ikaskuntza-gaiak eta garatze-uneak dokumentatzen dituzte.



Helburua

Gertaerak
Zer gertatu zen?



Gogoeta

Sentimenduak
Nola sentitu zinen
emozionalki eta
zure gorputzean?



Interpretazioa

Ulertu
Zer esan
nahi dute
gertaerek eta
sentimenduek?
Zerk lagundu edo
eragotzi du zure
helburuak lortzea?



Erabakimena

Etorkizuna
Zer egingo duzu
ondoren?

Zer da?



03

02

Metodoak

ORID teknika erabiltzeak hainbat abantaila ditu:

01

Ebaluatzaileari egitasmoaren gaur egungo egoera ezagutzen lagun diezaioke. Ebaluatzaileek askotan oin bat izaten dute ekimenaren barruan eta beste bat kanpoan. Ez dituzte beti ezagutzen oinarrian gertatzen denaren xehetasunak. ORIDen atal objektiboari esker, denbora-tarte jakin batean **gertatu denari buruzko informazio eguneratua lortzeaz gain, gertatu denaren garrantzia uler daiteke.**

02

Taldeari intentsitatea murrizten eta **ekintzatik distantzia hartzen laguntzen dio.** Fase objektiboak ere lagundu diezaioke taldeari gauzak moteltzen eta korapiloak askatzen, ikasketetan sakondu aurretik. Hausnarketarako gun bat sortzen du, eta, horri esker atzerapauso bat eman, etenaldi bat egin eta nondik datozen eta lanean nola aurrera egin aztertzen dute partaideek. Teknikak lanean **garapen uneak identifikatzeko espazioa ahalbidetu dezake, eta sortu ahala egon diren arazoak edo tentsioak detektatzeko** espazioa eskaini dezake.

Zertarako?



03

02

Metodoak

ORID teknika erabiltzeak hainbat abantaila ditu:

03

Konfiantzazko harremanak ezartzen eta elkarrizketa eraikitzaileak izaten lagun dezake. Proiektuan edo ebaluazioan gauzak ondo joan ez direnean, espazio neutrala eta metodo egituratu eta "segurua" eskaintzen ditu, emozioei buruz hausnartzeko, ondorioak aztertzeko eta taldea osatzeko adostutako hurrengo urratsak oinarri hartuta.

04

Ebaluazio parte-hartzailerako teknika gisa erabil daiteke. Interpretazio-zatia **gertatutakoaren eta printzipioen arteko erlazioari buruz edo aldaketaren teoriaren emaitzei buruz hausnartzeko erabil daiteke.** Zati hori "epaitu" edo ebaluatu egin daiteke; adibidez, taldeari galde diezaiokazu beraien burua puntuatzea printzipio bakoitzeko 1etik 10era.

Zertarako?



03

02

Metodoak

ORID teknika saio edo bilera baten ostean gertatukoari buruzko hausnarketa egiteko edo garatutakoa jasotzeko erabili ohi da.

Egokiena da saio edo **bilera giltzarri baten ostean ahalik eta azkarren egitea**. ORID prozesu bat egiteko gutxienez ordu bat behar izaten da. 45 minutuan egin daiteke, baina ikusi dugu zaila dela atal guztiak beharrezko sakontasunarekin jorratzea.

Hasi aurretik, taldeari prozesu osoa azaldu behar zaio. Horrek bi gauzetan **lagunduko du: saioan landuko denari buruzko espektatibak argitzen eta ideia batzuk non eman behar dituzten ulertzen**. Taldea prozesura ohitu arte, zein fasetan dagoen errepikatzen joan beharko da ebaluatzailea (ORID maiz erabiltzen ari bazara talde berarekin).

Ondoren, ORID teknikaren hausnarketa-fase bakoitzean zer gertatu behar den azalduko dugu.



Prak- tika



03

02

Metodoak

Helburua

Atal honetan gertatutakoa jaso eta laburbildu nahi da. Helburua da taldea kokatzea, gertatu zena gogoraraztea eta saioan parte hartu ez zutenak eguneratzea.

Urrats honetan, erraztaileak parte-hartzaileei gertaeretara mugatzeko, gertatu zena ez epaitzeko eta bere iritzia ez emateko eskatzen die. Batzuetan, erraztaileak galderak egin beharko ditu gertaerak azalertzeko, adibidez:

**Nork hartu zuen parte eta nork ez?
Aurreikusitako gai-zerrenda jarraitu al zen? Hala izan ez bazen, zer gertatu zen horren ordez?**



Prak-
tika



03

02

Metodoak

Urrats honetan kontuan hartzeko hiru aholku:

Batzuetan, taldea deseroso samar sentitzen da fase honetan, iritziak ez ematen ahalegintzen baitira eta gauzak bere baitan gordetzen baitituzte. **Ondo dago erraztaileak fase hau pixka bat bideratzea eta gertakariak kanpotik ulertzeko galderak egitea.**

Ekimen baten alderdiei buruzko informazioa partekatzeko eta taldearen ezagutza zabaltzeko **modu eraginkor eta praktiko bat da lorpenei buruzko datuak txarteletan jarri eta horiek banatzea.** Gero, parte-hartzaileei eska diezaiekezu beren txartelean dagoena partekatzeko (nahiz eta lorpen zehatzekin zerikusirik ez izan).

Ordu oso bat ez baduzu, parte hartzaile bati zati objektiboa prestatzeko eska diezaiekezu. Saioaren abiapuntuan taldeari irakurri eta zerbait falta den galdetu.

Prak-
tika



03

02

Metodoak

Gogoeta

Atal honetan taldekideek dituzten emozio ezkutak eta erreakzioak esploratu nahi dira, betiere gehiegi aztertu gabe.

Gogoeta-atalean sortzailea izateko aukera duzu. Proiekzioarako teknikak erabil ditzakezu, hala nola **“Azken lan-saioa txakurra balitz, zein arrazakoa litzateke? ”, edo “lore bat balitz, zer lore litzateke?”.**

Beste adibide batzuk izan daitezke parte hartzaileei eskatzea objektu bat aurki dezatela beren sentimenduak irudikatzeko, irudiak erabiltzea edo emozioak marraztea. Beste aukera bat saioaren sentimendua deskribatzeko hiru hitz gako idatz ditzatela eskatzea da. Teknika proiektiboak erabili badituzu, gogoratu objektu edo gauza jakin bat beren sentimenduak adierazteko zergatik aukeratu duten galdetzea.



Prak- tika



03

02

Metodoak

Urrats honetan kontuan hartzeko lau aholku:

Garrantzitsua da elkarrizketaren zati hau irekian eta modu organikoan gertatu dadin uztea, emozio bakoitza aztertu gabe. Agian ez duzu denbora asko beharko, baina eztabaida irekitzen lagundu beharko luke.

Erantzunetan aniztasuna lortzeko, parte hartzaileei **lehenik erantzuna idatzi eta gero partekatzeko eskatu.** Hartara, ez da hain erraza parte hartzaileek elkarri eragitea.

Denbora gutxi baduzu, guztiei hitz bakar bat idazteko eta hitz hori beraien artean pasatzeko eska diezaiekezu. Online bazaude, "slam txat" bat ere erabil dezakezu (txat funtzioan denek hitz bat idatzi eta aldi berean bidali botoia sakatzea).

ORID maiz erabiltzen baduzu, ikusi da **taldeei gogoeta fasean sormen ariketa ugari eskaintzea gustatzen zaiela.**

Prak-
tika



03

02

Metodoak

Interpretazioa

Fase honetan, gertatutakoari zentzua eman nahi zaio, baita ebaluazio-iritziak eman ere.

Saioaren “eta zer” zatia da.

Prozesuaren zati honetan, ikerketa-galderak sar ditzakegu, edo azaleratu diren aurkikuntzetan sakondu. Zatik analitikoena denez, komeni da aldez aurretik hausnartzea jarraitu daitezkeen ikerketa-ildoei buruz. **Atal honi denbora gehiago eskaini behar zaio, ORID prozesuak irauten duen denboraren erdia, gutxi gorabehera.**



Prak-
tika



03

Metodoak

02

Jarraian jaso dira interpretazio atalean egin daitezkeen **galderen adibide batzuk**. Uste dugu Ebaluzio Ebolutiboaren fasearen eta testuinguruaren arabera asko alda daitezkeela. Galdera hauek zure ebaluazio-esparruarekin edo zure ikerketa-galderekin lotu ditzakezu.



1

Gogoetarako
galdera
errazak

- Zerk funtzionatu du ondo?
- Zerk ez zuen hain ondo funtzionatu?
- Ustekaberik izan zen? Edo ezustekoak?

Prak-
tika



03

02

Metodoak

2

Printzipioetan oinarritutako ikerketa

- Zer printzipio dira garrantzitsuak une honetan?
- Espazio segurua sortzeko printzipioa errespetatu al dugu? Zein puntuazio emango zenikete 1etik eta 10era bitartean? Zergatik eman diozu puntuazio hori?
- Errespetatu al dugu pentsamendu sistemikoaren printzipioa? Zein puntuazio emango zenikete 1etik eta 10era bitartean? Zergatik?



Prak-
tika



03

Metodoak

02

3

Sortzen ari den
estrategia-
ikuspegia
erabiltzea

- Zein neurritan lortu dugu saio honetarako aurreikusitako helburuetako bakoitza?
- Zein faktorek lagundu zuen, eta zerk eragotzi zuen erabat?
- Landu beharreko zein alderdi sortu ziren?
- Zenbateraino egokitu gara sortu denera?
- Zer ikasi dugu?

Prak-
tika





03

02

Metodoak

4

Prozesuaren ikuskatzea

- Oro har, nola joan da saio hau? (1etik 10era bitartean zein puntuazio emango zenioke)
- Non egin dugu aurrera?
- Zerk ahalbidetu du aurrerapena? Zein ondorio atera ditzakegu?
- Non trabatu dira gauzak?
- Zer egon daiteke gauzak blokeatzen?



Prak-
tika



03

02

Metodoak

Urrats honetan kontuan hartzeko hiru aholku:

Batzuetan, jendeak gauzak nola sentitu zituzten esatea besterik ez du behar, eta garrantzitsua da fase honetan hori egiteko aukera ematea. Pertsona bakoitzak bere ustez zerk funtzionatu zuen eta zerk ez esatea bezain erraza izan daiteke. Erraztaile gisa, galderak egin ditzakezu, interpretazioa modu organikoan azalertzeko laguntzeko.

Batzuetan, ona da jendeak gauzak zeinen ongi joan diren puntuatzea. Badirudi horrek zorrotasun handiagoa ematen diola prozesuari. 0tik 10era bitarteko eskala erabiltzen dugu, pertsona batzuk erraz identifikatzen baitira harekin (baina kultura desberdinetan eroso senti daitezke eskala desberdinekin; beraz, komeni da balorazioa egin baino lehen eskala adostea). **Puntuazioa egiten bada, beti da garrantzitsua galdetzea zergatik puntuatu duten egin duten moduan.**

Ebaluatzaileak ORID teknikaren zati hau erabil dezake **gertatzen ari dena argitzeko. Gauzak izendatzeko** aukera ere bada, adibidez: "Beste behin ere komunitatearen erritmora joatea kostatzen zaigun eredu bat ikusten dut, nola ekidin dezakegu?"

Prak-
tika



03

02

Metodoak

Erabakimena

Erabakimen-fasearen helburua da hurrengo lan-zikloan zer egin adostea.

“Eta orain zer” zatia da. Honelako galdera bat egin liteke:

“Eztabaidatu dugun guztia oinarri hartuta, zer egin beharko genuke jarraian?”



Prak-
tika



03

02

Metodoak

Urrats honetan kontuan hartzeko aholkua:

Ziurtatu denbora ondo kudeatzen dela, ORID prozesuaren atal guztiak landu ahal izateko. Taldeentzat etsigarria izan daiteke erabakiak hartzeko faserako nahikoa denbora uzten ez bada.

Prak-
tika



03

02

Metodoak

ORID eskuragarriagoa egitea

Oraina gure zentzumen guztiekin bizi dugunean, geure burua pozez betetzera gonbidatzen dugu mundua. Iraganeko penak atzean geratu dira. Etorkizuna oraindik iristeke dago. Baina oraina edertasunez beteta dago, eta gure arretaren zain dago.

Laburbilduz, hauek dira fase bakoitzean lantzeko galderak:

- Gertaerak (Helburua) - **Zer gertatu da?**
- Sentimenduak (Gogoeta) - **Nola sentitu zinen emozionalki eta zure gorputzean?**
- Ulermena (Interpretazioa) - **Zer esan nahi dute gertaerek eta sentimenduek? Zerk lagundu edo eragotzi zizun zure helburuak lortzea?**
- Etorkizuna (Erabakimena) - **Zer egingo duzu ondoren?**

Prak- tika



03

02

Metodoak



Materialak

Clear Horizon erakundeak Oñatiko tokiko laborategian eman zuten prestakuntzan partekatutako materialak (Oñatiko Udalarekin batera garatutako proiektua, Etorkizuna Eraikiz finantzazioarekin).



Erreferentziak:

Better Evaluation, (2020). ORID. <https://www.betterevaluation.org/en/evaluation-options/orid>

Grayson, R. (2010). ORID – strategic questioning that gets you a decision. <https://pacific-edge.info/2010/08/orid/>

Erre- rentziak



04

Metodoak

02

Aldaketa

esanguratsuei buruzko
gertakizunak

04

02

Metodoak

Zer da?



Jarraipen eta ebaluazio kualitatibo eta parte-hartzailea

Aldaketa esanguratsuei buruzko gertakizuna teknika, edo ingelesez Most Significant Change (MSC), **inplikazio zein inpaktuaren ebaluazioa egiteko modu bat da.**

Teknika parte hartzailea da, izan ere, ebaluatzen den egitasmoan inplikaturako alderdi askok parte hartzen dute bai jaso beharreko aldaketa motak erabakitzeko orduan, bai datuen azterketan. **Proiektuaren diseinuak norbanakoengan duen eragina benetan eta modu adierazgarrian ulertzen laguntzeko erabil daiteke.**

MSC teknika Rick Davies-ek sortu zuen; geroago, Jess Dart-ek probatu eta Australiako testuingurura egokitu zuen, eta 2005ean elkarrekin idatzi zuten horren erabilera azaltzeko prozesu-gida.

Zer da?



04

02

Metodoak

Lehen pertsonan oinarritutako kontakizunak

Aldaketari buruzko galdera zentralari emandako erantzunek kontakizun-forma hartu ohi dute: nork egin zuen zer, noiz eta zergatik, eta gertakizunaren garrantziaren arrazoiak.

Lehen pertsonan jasotako kontakizunetan oinarritzen dira. Kontakizunak **egitasmoan gehien inplikaturik dauden pertsonengandik lortzen dira**, hala nola, parte-hartzaileengandik eta horretan lan egiten duen taldearengandik. Kontakizunak galdera erraz bat eginez jasotzen dira, adibidez:

“Azken hilabeteetan, zure ustez, zein izan da programan parte hartu dutenentzako aldaketarik esanguratsuena?”.

Elkarrizketatuek kategoria batean esleitu behar dituzte beren kontakizunak. Gainera, elkarrizketatuei eskatzen zaie azaltzeko zergatik uste duten aldaketa zehatz bat dela esanguratsuena.



Zer da?



04

02

Metodoak

MSC teknikaren funtza

MSC teknika zure testuinguruan erabiltzeko helburua definitzea.


Aldaketa esanguratsuen kontakizunak biltzea.

Kontakizunak berrikusi eta aukeratzea

Jasotakoa aberastu eta komunikatzea

Gertatutakoari buruz ikasi eta aztertzea

Zer da?






04

02

Metodoak

Prozesua



Zer da?



04

Metodoak

02

Praktikan jarri

MSC erabiltzean, oinarrizko **hiru urrats** daude:

01

Bildu beharreko kontakizunak zeintzuk izango diren erabakitzea (adibidez, praktiken aldaketak, ahalduntzearen ingurukoak)

02

Kontakizunak biltzea eta garrantzitsuenak zein diren zehaztea

03

Parte hartzen duten eragile ezberdinekin eta ekimenaren arduradunekin **kontakizun eta balioen eztabaida partekatzea**, baloratzen denari buruzko ikaskuntza gerta dadin.

Kontakizunak ekimenean parte hartu duten pertsona ezberdinei elkarrizketak eginez biltzen dira. Ondoren erabilgarriak izan daitezkeen zenbait aholku partekatzen dira elkarrizketa hauek egiteko eta proiektuak monitorizatu zein ebaluatzeko kontakizunak behin eta berriz atzemateko.

Zertarako?



Elkarrizketa burutzeko aholkuak

04

Metodoak

02

Hartu denbora elkarrizketa hasi aurretik **konexioa sortzeko**

Aurkeztu zeure burua. Erabili hasierako tarte pertsona nor den jakiteko eta konexioa sortzen hasteko. Landcare-ko gidako lehen galderaren (MSCren prozesu- gida, or.: 92-96) helburua da hau erraztea. Azaldu iezaiezu nor zaren, edo, besterik gabe, azaldu elkarrizketa prozesua nola izango den.

Zertarako?



04

Metodoak

02



**Orokorretik
hasi** eta arreta
bideratzen
joan.




**Egin diren aldaketa
guztiez galdetu
iezaiezu** (handiak,
txikiak, positiboak
edo negatiboak);
ondoren,
eskatu iezaiezu
esanguratsuena
iruditzen zaiena
aukeratzea eta horri
buruzko kontakizuna
deskribatzea.
Informazioa zerrenda
batean jaso.



Esploratu,
ez gidatu!

Zertarako?



- Eman ahal didazu gertatutakoari buruzko xehetasun gehiago?
- Adibideren bat eman diezadakezu?
- Nork parte hartu zuen? Norengan izan zuen eragina?
- Nola hasi zen dena?

Zertarako?



04

02

Metodoak

Askotan (**nor, non, zer, zergatik eta nola**) formulazioak erabiltzen dira, baina saiatu elkarrizketatua ez gidatzen. Galdera bereziren bat egin nahi badiozu elkarrizketatuari, itxaron MSC teknikako galderak osatu arte. Aldaketa esanguratsuaren kontakizun bat jasotzea eta elkarrizketa bat egitea oso gauza desberdinak dira.

Nola izan zen?

Nola sentitu zinen?

Zer? Non? Noiz?

Azal dezakezu zertan diren desberdinak orain gauzak?



Azaldu/deskribatu dezakezu?

Nolakoa zen lehen/ondoren?

Zergatik? Norentzat?

Zergatik da hain garrantzitsua zuretzat?

Zertarako?



Zertarako?



04

02

Metodoak

Proiektua monitorizatu eta ebaluatzeko prozesua

Kontakizunak hautatzea

Zergatik aukeratu behar dira kontakizunak MSC teknikan?

01

Jendeak kontakizunak irakurriko dituela bermatzen du.

02

Pertsonen elkarrizketa sakonagoa izateko teknika da.

03

Jendea eroso sentitzen den espaziotik ateratzen badu ere, eta baliteke ez gustukoa izatea kontakizun bati beste bati baino lehenetasun handiagoa ematea; hala ere, garrantzitsuena ez da aukeratzea, baizik eta elkarrizketan aritzea eta lehenespen prozesuan balioak azalaraztea.

Zertarako?




Nola hautatu

Hautaketa-prozesua kontakizun batzuk edo guztiak ozen edo bakarka irakurrita hasten da.

Normalean, **hobe izaten da kontakizunak ozenki irakurtzea, horrela kontakizunaren errealitatearekin konektatzen dugu**, baina praktika honen eraginkortasuna eta bideragarritasuna testuinguruaren arabera izango da. Kontakizunak kategoria desberdinetan sailkatu badira, kategoria bateko kontakizun guztiak batera aztertuko dira. Kontakizunak irakurtzen dituztenek kontakizun bilketa-prozesuan erabilitako antzeko galdera bat egingo dute:

Zertarako?


“Aldaketa esanguratsu horien artean, zein izan da zure ustez esanguratsuenena?”
Eta, “Zergatik uste duzu esanguratsua dela?”.



02 ————— 04

Metodoak

Kasuan kasu, erraztu edo erraztu gabeko zenbait prozesu erabil daitezke taldeei kontakizun garrantzitsuena aukeratzen laguntzeko.



Zertarako?



Hautaketaren arrazoiak dokumentatzea

Komeni da aldaketa esanguratsuaren kontakizuna dokumentatzea eta adierazgarriena bezala zergatik hautatu den azaltzea

Aukeraketaren arrazoiak dokumentatzea hautaketa-bilera bateko azken eginkizuna izaten denez, **gogoeta azkarregi egitearen arriskua dago eta idazten dena ez izatea eztabaidaren sakontasunean edo emandako iritzien kalitatearen isla.**

Azalpenek hitz gako gutxi (“jasangarriagoa” edo “genero-berdintasuna”) batzuetatik haratago joan behar dute. **Esaldi osoak erabili behar dira aukeratutako kontakizunak adierazgarriak zergatik diren azaltzeko.** Kontakizun baten hautapena justifikatzeko zenbait irizpide erabili badira, horien garrantzi erlatiboaren azalpen batekin batera zerrendatu behar dira.



Zertarako?



04


02

Metodoak

Istorioen eztabaida eta azterketa

Hautatze-prozesua amaitu ondoren, askotan ona izaten da distantzia hartzea eta kontakizunek kolektiboki esaten digutenari buruz hausnartzea.

Jasotako **kontakizunen edukiaren azterketa sistematikoa egitea** aukerako beste urrats bat den arren, esperientziak erakutsi du aldizkako hautaketa-bileretan kontakizunen edukari buruz gogoeta egiteak **aukera** bikaina dela **ikaskuntza proiektuko jardueretan txertatzeko**.



Zertarako?



04

Metodoak

02



Materialak:

Clear Horizon erakundeak Oñatiko tokiko laborategian eman zuen prestakuntzan partekatutako materialak (Oñatiko Udalarekin batera garatutako proiektua, Etorkizuna Eraikiz finantzazioarekin).



Erreferentziak:

Davies, R., & Dart, J. (2011). Técnica del “Cambio Más Significante” (MSC, por sus siglas en inglés) Guía para su uso. Better Evaluation. <https://www.betterevaluation.org/sites/default/files/2022-10/El-cambio-mas-significante.pdf>

Erre-
ferentziak



05

02

Metodología

Beste teknika batzuk



05

02

Metodoak

Beste
teknika
batzuk

Ebaluazio Ebolutiboa gauzatzeko **askotariko metodologia eta teknikak** daude. Ondorengo orrialdeetan beste teknika eta metodologia batzuk jaso nahi izan ditugu.

Azkeneko hauek modu orokorrean deskribatu ditugu, eta informazio gehiago jakin nahi izanez gero, **jarri zaitzte Arantzazulab-eko lan taldearekin** edo testuan zehar partekatzen diren erreferentzietako ordezkariekin harremanetan.





06

02

Metodoak

InDeep



06

Metodoak

02

Zer da?

Eredu ebolutiboa da. Gizarte Berrikuntzako prozesuaren faseak jarraituta eta **aldaketaren teoriaren metodologia ardatz hartuta**, zentzu-emate eta sormen prozesuan zehar Ebaluazio Ebolutiboa garapenerako modu bezala jasotzen du metodologia honek.

Eredua The Australian Centre for Social Innovation eta Clear Horizon erakundeek elkarlanean garatu zuten.

Tresna estatiko gisa ulertzen den **eredu logiko batetik**, ekintzekin zein **denborarekin egokitzea eta eboluzionatzea helburu duen eredura aldaketa proposatzen da.**

Indeep ereduak **aldaketaren teoria erabiltzen du** hari eroale gisa, hain zuzen ere, diseinu-prozesua eta prototipazio zein inplementazioaren ebaluazioa lotzeko.

InDeep



06


02

Metodoak

Oro har, InDeep markoak diseinuaren eta balizko ebaluazioaren arteko erlazioak kontzeptualizatzen ditu. .

Alegia, diagramaren goiko aldeak **best fasetan** aurkezten du Gizarte Berrikuntza prozesua: **esploratu, definitu, prototipatu, pilotatu eta eskalatu.**

Diagramaren **beheko aldean**, Gizarte Berrikuntzaren fase bakoitzean erabilgarri izan daitezkeen ebaluazio-ekarpenak zerrendatzen dira: **diseinu ikerketa, probaren garapena, ebaluazio pilotua eta inpaktu zabalagoak.**



Zer da?



06

02

Metodoak

Prozesua arrakastarako diseinuaren eta ebaluazioaren arteko erlazioa ezarriz hasten da, eta arretaz hausnartzen da egiturei, rolen argitasunari eta irismenari buruz.

Irismenari dagokionez, lehenik eta behin, **proiektua zein diseinu-fasetan dagoen edo ebaluazioa egiten denean** zein fasetan egotea espero den **hartu behar da kontuan.**

Hau identifikatu ondoren, beharrezko ebaluazio-motak zein diren zehazten da.

Zer
da?





06

Metodoak

02



Gizarte Berrikuntza prozesua prototipoen **hasierako fasean badago, Ebaluazio Ebolutiboaren** ikuspuntuak egokienak izan daiteke



Proiektua **prototipoak sortzeko azken fasean** badago edo eragin handiagoko fase batera pasatu bada ordea, **ebaluazio tradizionalago** bat erabiltzea egokiagoa izan daiteke (ebaluazio sumatiboa / formatiboa), fase horietan erantzukizun handiagoa baitago emaitzak eta inpaktuak lortzeko.

Zer
da?



06

02

Metodoak

InDEEP ereduak, halaber, kontuan hartzen du zenbait **ebaluazio-tresna** erabilgarri direla Gizarte Berrikuntzako **prozesuaren fase guztietan**.

Diagraman funtsezko kontzeptu gisa deskribatzen dira, eta ondorengo bi kontzeptuak jasotzen dituzte: modelizazioa (adibidez, aldaketaren teoria) eta ikaskuntza erraztea (adibidez, lagun kritiko bat izatea). Beharrezkoa izanez gero, prozesuen eta/edo gaitasunen ebaluazioa egitasmoaren edozein fasetan ere aplikatu daiteke.

Zer
da?



06


Metodoak

02

Onurak

Gizarte Berrikuntza prozesuetan sortu nahi den eraldaketaren arabera, erabakiak hartzen joateko eta sortutako soluzioak ikasitakoaren arabera egokitzen joateko.

Eredua baliagarria da ziurgabetasun eta konplexutasun maila altuak dituzten testuinguruetan.



Zertarako?



06

02

Metodoak

Praktikan jarri

Indeep ereduak gauzatu ahal izateko Gizarte Berrikuntzako **prozesuetan jarraituko diren faseak eta ekintzak ezagutu behar dira lehenik eta behin.** Lehen aldia bada horrelako prozesua lantzen duzula, eta gaia esploratzen hasi nahi baduzu, ondorengo edukiak baliagarriak izango dira:

- [Open book of Social Innovation <https://youngfoundation.org/wp-content/uploads/2012/10/The-Open-Book-of-Social-Innovation.pdf>](https://youngfoundation.org/wp-content/uploads/2012/10/The-Open-Book-of-Social-Innovation.pdf)
- [Gidak eta txantiloiak: Danish Design centre: <https://ddc.dk/tools-and-methods/#>](https://ddc.dk/tools-and-methods/#)
- [Gidak, txantiloiak eta kurtsoak: The Australian Centre for Social Innovation: <https://www.tacsi.org.au/learning-hub>](https://www.tacsi.org.au/learning-hub)

Prak- tika




Indeep ereduak praktikan jartzeko, abiapuntuan aldaketaren teoria sortzen da. Hau da hori lantzeko txantiloia proposamena:

06

02

Metodoak



Iturria
Ingrid Burkett

Prak-
tika



Indeep eredu praktikan jartzeko, aztertu beharreko gaiak eta horiei dagozkien galderak zehaztu egiten dira. Hau da hori lantzeko txantilo proposamena:

06

02

Metodoak

<p>Gaia</p> <hr/>	<p>Galderak</p> <hr/> <hr/> <hr/>	<p>Azpi galderak</p> <hr/> <hr/> <hr/>	<p>Informazioa biltzea</p> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/>	<p>Informazioa biltzea</p> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/>
<p>Gaia</p> <hr/>	<p>Galderak</p> <hr/> <hr/> <hr/>	<p>Azpi galderak</p> <hr/> <hr/> <hr/>	<p>Informazioa biltzea</p> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/>	<p>Informazioa biltzea</p> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/>


Prak-
tika



06

02

Metodoak



Materialak:

Clear Horizon erakundeak Oñatiko tokiko laborategian eman zuen prestakuntza partekatutako materialak (Oñatiko Udalarekin batera garatutako proiektua, Etorkizuna Eraikiz finantzazioarekin).



Erreferentziak:

Dart, J. (2020, 27 febrero). Design & Evaluation – We're Better Together – Clear Horizon Consulting. Clear Horizon Consulting. <https://www.clearhorizon.com.au/design-evaluation-were-better-together/>

Erre- rentziak



07

02

Metodoak

Hausnarketa saioak




07

02

Metodoak

Zer da?

Hausnarketarako saioen bidez proiektuan parte hartzen duten eragileen arteko elkarrizketa eta gogoeta errazten da. Gogoetarako honako galderak proposatzen dira:



01

Esandakoa betetzen ari gara?

02

Gure bisioarekin bat datoz ematen ari garen urratsak?

03

Testuingurua kontuan hartzen ari gara?

04

Gaur egungo hasiera puntua eta gure bisioa konektatzen ari gara?

05

Eta nola dakigu galdera horien erantzunak esandakoak direla?

06

Zer ikusten dugu desberdina dela, zer ikusten dugu sortzen ari dela?

Zer da?



07

02

Metodoak



***Ahal genuen guztia egin genuen
genekienarekin eta genituen baliabideekin.
Orain beste leku batean gaude gure
garapenean, gauza desberdinak egiten eta
pentsatzen ari gara.
Hori da garapena. Aldaketa bat da. Baina ez
da zertan hobekuntza bat.***

-Jean Gornick, ED, Damiano, Duluth, MN



Zer da?



07

02

Metodoak

Gure egitasmoan gauden unearen arabera, hausnarketarako saioetan lantzeko galdera zehatzak zehaztu ditzakegu. .

Betiere, gaur egungo jarduera eta **lan-ildoetako hutsuneak identifikatzen lagundu behar digute galdera horiek**. Ondoren, bildutako informazioari buruz hausnarketa egingo dugu eta taldean datuak aztertuko ditugu, azken helburua da egitasmoa garatzen jarraitzeko ondorengo urratsak adostea.

Zer da?



07

02

Metodoak

Adibidez, egitasmoaren **lehen faseetan, xedea definitzen eta testuingurua aztertzen ari garenean**, galderak hauek bezalakoak egin genitzake hausnarketa saioetan:

Faseak

Helburuak

Galdera orientagarriak

Xedea

Gaur egungo sistema aztertzea eta bertara nola iritsi garen esploratzea.

- Zer narratiba ari da sortzen sisteman aldaketa bat egon daitekeela sumatzeko?
- Zein dira prozesuan aurrera egiteko oztupoak? eta aurrera egiten laguntzen duten faktoreak?
- Zer erreferentzia-puntu komun sortzen ari dira egungo egoera/ sistema ulertzeko?
- Zer argudio eta zantzuak ari dira azaleratzen etorkizuneko sistema baterantz goazen ala ez jakiteko? (Sistema eraldaketaren mugarriak)
- Zer prozesuk sortzen dute ilusioa eta gogoak? Zergatik?
- Zein irizpide erabiltzen dira aktore nagusiak identifikatzeko?

Testuingurua

Eraldaketarako espazioa definitzea. Soluzio-multzoa kudeatzeko printzipioen definizioari ekitea

- Zer kausa- eta efektu-harreman potentzial, interdependentzia, eta aurrera egiteko aukera sortzen ari dira?
- Nola eragiten diete berrikuntza-iturri berriek edo berrikuntza-ekintzek interesatzen zaizkigun jarrereri?
- Zer harreman ari dira sortzen balizko berrikuntza-eragileekin?
- Kasu desberdinen esploraziotik zein ikasketak laguntzen du diseinu printzipioak sortzen?
- Zein da askotariko soluzioak sortzeko prozesuan aurrera doazen ekintzak? Besteak beste: eragin eremuak, diseinu printzipioak, berrikuntza ekimenak.

Zer da?



07

02

Metodoak

Onurak

Hausnarketa saioak eguneroko ekintzen zurrunbiloa gelditu eta gogoetarako espazioa ahalbidetzen dute.

Eraldaketa egitasmoetan lan taldea buru-belarri lanean ibiltzen da saioak antolatzen, ekintzak garatzen eta ideiak gauzatzen. Baina, **egiten ari garen horrek abiapuntuan zehaztutako helburuak eta oinarriko elementuak betetzen dituen ulertu behar dugu.** Horretarako, egiten ari garenari buruzko zein geure buruari buruzko kontzientzia garatu behar dugu. Goian jasotako galderak lantzeko saioek gure praktikan sakontzen lagundu diezagukete, eta sortu nahi ditugun inpaktuak erdiesteko bidea argitzen joan daitezke.



Zertarako?





07

02

Metodoak

Praktikan jarri

Erabili egitura hau egiten ari zarenari buruz hausnartzeko.

Abiapuntuan ondorengoa zehazten da: zein da esku artean duzuen erronka bat?


**Prak-
tika**



07


02

Metodoak



Materialak:

Clear Horizon erakundeak Oñatiko tokiko laborategian eman zuen prestakuntzan partekatutako materialak (Oñatiko Udalarekin batera garatutako proiektua, Etorkizuna Eraikiz finantzazioarekin).



Erreferentziak:

Gamble, J. (2008). A Developmental Evaluation Primer. Montreal: The J.W. McConnell Family Foundation. Extraído de:
<https://mcconnellfoundation.ca/wp-content/uploads/2017/07/A-Developmental-Evaluation-Primer-EN.pdf>

Erre- rentziak



08

02

Metodoak

Gida galderek



08

Metodoak

02

Oinarrizko ebaluazioa egiteko marko hau **hiru galderen bitartez** egin dena edo egiten ari dena sinplifikatzeko laguntzen du:

01

Zer?

02


Eta zer?

03

Orain
zer?

Galdera sinple horiek faktore asko **aztertzen** eta egitasmoan egiten ari garena **ulertzeko** informazio asko **azalaratzen** laguntzen digute.

Zer da?



Hiru galdera horietako bakoitzean sakontzeko ondorengo galdera sortari buruz hausnarketa egitea proposatzen da:

01
Zer?

Zer ikusten dugu?
Zer diote datuek?
Zein dira aldaketa-
edo egonkortasun-
adierazleak? Zein
seinale identifikatu
ditzakegu
aldaketa gerta
daitekeela adierazi
dezaketenak?


02
Eta zer?


Orduan, zer zentzu
eman diezaiekegu
jasotako datuei? Zer
esan nahi du guretzat
une honetan eta
etorkizunean? Zer
eragin dute egungo
aldaketek gugan, gure
bezeroengan, gure
sare zabalean eta gure
ikerketa- eta ekintza-
eremuan?

03
**Orain
zer?**

Zein dira gure aukerak?
Zein dira gure
baliabideak? Noiz eta
nola jardun dezakegu
-banaka edo taldeka-
une honetan eta
hurrengoan aukerak
optimizatzeko?

¿Qué
es?





08


Metodoak

02

Onurak

Hiru galdera errazen bitartez gure praktikari buruz eta egiten ari garen eraldaketa esfortsuei buruz gogoeta egitea ahalbidetzen du metodologiak.

Galdera zehatzak eta errezak direnez, askotariko ezagutzak, esperientziak eta ikuspegiak dituzten pertsonak parte hartzea ahalbidetzen da.



Zertarako?



08

02

Metodoak

Praktikan jarri

01

Egitasmoan parte hartzen duten eragileak batu eta gida **galderak pixkanaka aurkezten joan**.

02

Galderak deskribatzen diren heinean, partaideei **erantzuteko tarte eman** eta ekarpen guztiak jaso.

03

Saioaren ostean, **bildutako informazioa aztertu** eta ideia gakoak partaideekin zein egitasmoaren inguruko eragileekin partekatu.

Prak- tika



08

02

Metodoak

Hemen jaso dugu galderei eman diezaiokegun lehen erantzun batzuk, adibide bezala baliagarria izango delakoan:

01

Ez?

Ezagutza berria garatzen ari gara. Datuek erakusten digute ez garela dena komunikatzen ari. Sare sozialetan berriak partekatzen ari gara, baina ez dugu interakzio askorik. Gure jarraitzaile kopurua hazi da eta ezagutzen ez genituen pertsonak/eragileak gurekin kontaktuan jartzen ari dira.

02

Eta zer?

Pertsona adituen eta herritar aktiboen interesa piztu dugu. Baina aniztasuna falta da -pertsona gazteak, kultura askotarikoak, zaharrak...- eta konbertsazioa sortu behar dugu. Deliberazioa eta dialogoa sortzeko gai bagara, askotariko pertsonen Gobernantza eredu berrien informazioa helarazten badiogu, instituzio publiko eta herritarren arteko harremanak indartuko lirateke.

03

Orain zer?

Sortutako sareak indartuz eta katalizatuz askotariko eragileak gonbidatzeko moduak eta kanalak esploratuko ditugu.

Prak- tika



08

02

Metodoak



Materialak

Clear Horizon erakundeak Oñatiko tokiko laborategian eman zuten prestakuntza partekatutako materialak (Oñatiko Udalarekin batera garatutako proiektua, Etorkizuna Eraikiz finantzazioarekin).



Erreferentziak:

Gamble, J. (2008). A Developmental Evaluation Primer. Montreal: The J.W. McConnell Family Foundation. Extraído de: <https://mcconnellfoundation.ca/wp-content/uploads/2017/07/A-Developmental-Evaluation-Primer-EN.pdf>

Erre- rentziak




09

02

Metodoak

Sareen mapa





09


Metodoak

Ekimen batek lankidetzan diharduten hainbat eragile inplikatzeko dituen edo sare baten garapena proiektuaren helburuetako bat denean, **sarea mapatzeak** harreman horien dinamikari eta egoerari buruzko informazioa eman dezake.

02

Inplementazio-prozesuak indartu ditzakete ondorengo jarraipena egitea: partaideen ideiak eta ekintza bateratuak partekatzeko eta zabaltzeko moduak. Sare bat mapatzea da **pertsonen arteko konexioak identifikatzea eta grafikoki erakustea**. Hori eskuz egin daiteke, baita programa informatiko eraginkorrek eta irisgarriak ere erabili daitezke.

Zer
da?





09

02

Metodoak

Beneficios

Egitasmoaren
testuingurua,
eragileak eta horien
arteko harremanak
bisibilizatzeko eta
informazio horri buruzko
kontzientzia hartzeko.



Zertarako?





09

Metodoak

02

Praktikan jarri

Sareen mapa osatzeko ondorengo urratsak jarraituko dira:

Mapatzearen helburua adostu: zergatik egingo dugu mapatzea eta zein da lortu nahiko genukeen helburua?

Mapatzea egiteko erabiliko den tresna zehaztu.

Informazioa jasotzeko egin beharreko galderak zehaztu.

Jaso nahi den informazioa duten eragileak gonbidatu eta informazioa jasotzeko saioa erraztu.

Saioan sortutako mapa eta horretan jasotako ikasketak zabaldu.

Prak-
tika




Arantzazulab

GIZARTE BERRIKUNTZA
SOCIAL INNOVATION

02 ————— 10

Metodoak



Indarguneetan oinarritutako ikerketa




10

02

Metodoak

Indarguneetan oinarritutako ikerketaren baitan dagoen premisa da galdera egitea ez dela ikerketa bat soilik, esku-hartzea ere badela.

Ezaugarri positiboetan oinarritzen da: funtzionatzen ez duenaren ordeztu funtzionatzen duen horretan jartzen du indarra.



Zer
da?



10

02

Metodoak

Onurak

Erakundeekiko konfiantza sustatzen du, ekarpen indibiduala onartzen duelako eta aldaketa-ahaleginaren eraginkortasun orokorrari laguntzen diolako.

Gabezietan edo lortu ez den horretan oinarritu baino, lorpenak eta indarguneak hartzen ditu abiapuntu bezala, horrek inplikaturako eragileengan **eraldaketarako inspirazioa eta motibazioa indartzen ditu.**



Zertarako?



10

Metodoak

02

Praktikan jarri

Elkarrizketetan oinarritutako metodologia da.

01

Lehenik eta behin, **galderak eta horiek egingo dizkiegun pertsonak zehaztuko dira.**

02

Ondoren, **solasaldia erraztuko da informazioa jasoko** da.

03

Azkenik, elkarrizketetan identifikatutako indarguneetan oinarrituta **hurrengo urratsak zehaztuko** dira.

Prak-
tika



10

02

Metodoak



Materialak

Clear Horizon erakundeak Oñatiko tokiko laborategian eman zuen prestakuntza partekatutako materialak (Oñatiko Udalarekin batera garatutako proiektua, Etorkizuna Eraikiz finantzazioarekin).



Erreferentziak:

Gamble, J. (2008). A Developmental Evaluation Primer. Montreal: The J.W. McConnell Family Foundation. Extraído de:
<https://mcconnellfoundation.ca/wp-content/uploads/2017/07/A-Developmental-Evaluation-Primer-EN.pdf>

Erre- rentziak

